

# **"Umore Giroan"**

## **Pedro Zelaia**

Dibujanteak:

Paulino Larrañaga

J.A. Azpilikueta

Ander Gisasola

EGO IBARRA 1991. Eibarko Udala  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin

Argitaldaria: Eibarko Udala  
Inprimategia: GERTU E. Koop. OÑATI  
ISBN

EGO IBARRA ikurra: J.A. Arkotxa

Juan San Martinek, bere "Zirikidak" liburu ederraren hasieran ondo asko esaten zebana hartuko dot Pedro Zelaiaren "Umore Giroan" liburua aurkezteko: *"Geroago ta ziurrago nago herririk barik euskera salbatzerik ez dogula. Herrianganako lokarriak apurtzea, akademismu hutsezko euskera batera jotea litzake, ta akademismu hutsa izango litzake euskeraren heriotza. Bizia bai da hizkuntza guztien muiña eta izate guztia. Hizkuntzak, hizkuntza bezela ez dau beste zentzunik, bizia baiño."* Zer gehixuko dot nik? Umoria beharrezkoa dogula eguneroko biarrian jardutzeko, bizimodua errazago eruateko, eta Zelaiak lagundu egiten doskula bere liburuakin barre egin deigun, horren premina badago ta.

Aurora Bascaran, Alkatesa

## ATARIKUA

*Badie urte batzuk, entzutez bakarrik ezagutzen neban Don Pedro Zelaiaren etxera agertu nintzala mesede eske. Berak zuzentzen daben "Eibar" errebestia eskatu notsan eta baitta berak laga be bape problema barik koleziño osua, lau liburukotetan txukun enkuadernauta. Zabala eta mamintsua pentsau jatan errebestia eta bertan agertzen zien ehundaka txistetatik batzuk aukeratu nittuan "Fernando Plaentziarra" osatzeko. Hau dala ta, etxat bape harritsu eta gaiñera asko poztu naiz, hain jator portau jatan Don Pedrok Eibarko euskeran txiste liburu bat argitaratu bihar dabela jakin dotenian.*

*Ezta zurikerixetan ibiltziagaittik baiña Eibarko euskeria Bergaratik entzunda beti pentsau izan jat (eta ez neri bakarrik) oso musikala eta gozua, halako patxara eta lasaitasun bat transmititzen dabena, Sagar-errekako uraren zurrumurrua bezelakua. Ostera, Mondrauekuari (eta ezadila inor hasarretu) gogorra eta takarra irizten dotsagu eta haren soiñuak errekatxua baiña "Vascongados" trenaren trikitraukia dakargu gogora.*

*Eibarren dezente eskribidu da bertako euskeran, beste iñun baiña gehixao. Toribio Etxeberriaren lanez gain hor dagoz Eibar inguruko umoria erakusten doskuen Juan San Martinen "Zirikadak" eta "Eztenkadak" liburu bikaiñak.*

*Egi haundixa da norberaren amak bezin bazkari onik ezabela iñok gertatzen eta etxaburuko itturriko ura baiña gozuagorik eztala munduan. Eta eztago euskera gozuagorik ttikitatik herrixan entzun eta ikasi doguna baiña. Eta gure euskera horretan graziaz kontautako edozein ipuin edo "pasautako" entzutia baiña gozagarri haundixagorik eztago gure belarraxidendako. "Etxian bezela" sentitzen gara geure berezko berbetia entzuten eta egitten, eta baitta, zergatik ez, irakurtzen.*

*Eta bada jentia hau iñundik iñora entenditzen eztabena. Allakuidaos. Eurendako okerrago. Iñun sustarrik bota eztaben seiñale.*

*Seguru nago Don Pedroren liburua irakurtzerakuan jente askok egundoko barriak egingo dittuala eta beste asko berriz patatia baiña serixuago geldittuko dala. Izan be, umore honekin disfrutatzeke sasoi bateko girua ezagutu bihar da apur bat. Fetxa bat jartzearren, 1960 aurretiko girua: errekan peskan, basuan kazan, tabernan barriketan edo kamiñuan "foballian" egin zeikien sasoi. Eta baitta huelgak, krisisa, gerratia, gosedenporia, estraperlua, frankismua...*

*Gaur dibersiño gehixenak "begizkuak" dien moduan, orduan "berbazkuak" zien nagusi: zeñek gizur haundixua bota, erantzun zorrotzagua emon, zeñi adarra hobeto jo, zirixa sartu...,guzti hau deporte ero arte moduan hartzen zan, eta oinddio hartzen da zorionez, gutxi baiña badagoz oindio eta lehengo izakera zaharrari eusten dotsenak. Izango al dabe segidia.*

*Don Pedroren liburuaren lehenengo partian eibartar zelebrien muestrarixio bat dator, bakoitza bere nortasun eta filosofixiarekin. Eneuke esango lehengo jentia oingua baiño zoriontsuagua zanik baiña bai personalidadia markauagua ebela, diferentiaguak ziela bata bestiagandik. Oinguak danok trokelian egindakuak emoten dogu. Marino, Kaietano Kareaga, "Balbotin"... ,aspaldi juandakuak izan arren oinddio eibartar askoren goguan dagoz.*

*Gero plaentziarrenak datoz. Beti bihar izaten da baten bat inguruan bromarako ero adarra joteko eta horretarako zein lagun hobiagorik plaentziarrak baiño. Zine ero zirkoko bikote komiko zelebriak ekartzen dost gogora Eibar-Plaentzia parejak. Eta ez dauka gusto berdiña plaentziarren txistiak eta "va un guipuzcoano" edo "va uno de Bilbao" hasten danak. Sagar-errekako ura eta Nerbioikua eratia bezela da.*

*Kazarixak, peskarixak, langile eta uezabak, medikuak... ,danetik topauko dogu liburuan zihar armonixa ederrian eta umore ederraguan.*

*Zorionak eta eskerrikasko Don Pedro Zelaiari gure aurretikuen ur freskotik emon doskulako eraten. Zabaldu ba poliki poliki itturrixa eta eran bertatik, baiña kontuz, barrez itto barikii*

Ubera-Bergara, 1991ko setienbriaren 24an  
Juan Martin Elexpuru

## AURKIBIDEA

### I. ITZAURRIA.

### II. EIBARKO GIZON XELEBRIAK.

Marzelo Gisasola, "Marzelo Katu-baltza".

Kaietano Kareaga.

Marino Solaguren

Bruno Larrañaga, "Gantxus".

Eustakio Arrizabala, "Otua".

Felix Gorrotxategi, "Felix Legarre".

Jazinto Arrillaga, "Kaporala".

Andres Urionabarrenetxea, "Punteret".

Marzelo Larreategi, "Balbotin".

Patxiko Larrañaga.

### III. PLAENTXIATARREN GATZA

### IV. BIURRIKERIXAK

### V. ESTRAPERLO DENBORAN

### VI. KRISIS URTIETAKO GAUZAK

### VII. ADARRA JOTZEN

### VIII. KAZARIXENAK

### IX. DANETIK ZEOZER.

## I. ITZAUERRIA

Historiari buruz iru liburutxo idatzi eta Aita Galdos eibartar jesuita ospetsuaren bizitza aztertu ondoren, Eibarko Udaletxeari esker, Eibar eta Plaentxiako txistiekin liburu au moldatzeko zoriona izan dot. Eskerrikasko batez be gure erriko Udaletxeko anai-arreberi.

Irakurle, "Eibar" aldizkarian agertutako pasadizoak irakurriko dozuz emen. Zer billatu nai izan doten liburutxo onekin? Poz apurtxo bat zabaldu gure artian. Zegaitxik eze, barre egitea, gauza ona dalako. Alaitasunian, pozik, zoriontasunian bizitzeko sortuak izan gara. Aspaldi esan zeban Santa Teresak etzegoala santu izaterik tristetasunian. Poztasuna izan biar da gure gizakume eta kristau bizitzaren ezaugarrietako bat. Eta orrek, barre eta algara berakin dakar. Artu, irakurle, asmo onekin nere eskeintza txiki eta pobre au. Eta barkatu -beste arek esan zeban lez- "zementozko arpegixakin", txistien plaza zabal eta aberatsera ain gauza gitxikin agertzen naizelako.

Pedro Zelaia, 1991ko Nobienbria

## II. EIBARKO GIZON XELEBRIAK.

Marzelo Gisasola, "Marzelo Katu-baltza".

Kaietano Kareaga.

Marino Solaguren

Bruno Larrañaga, "Gantxus".

Eustakio Arrizala, "Otua".

Felix Gorrotxategi, "Felix Legarre".

Jazinto Arrillaga, "Kaporala".

Andres Urionabarrenetxea, "Punteret".

Marzelo Larreategi, "Balbotin".

Patxiko Larrañaga.

Asko izan dira Eibarren gizon xelebriak. Danak aipatzekotan, eurak bakarrik beteko leukie liburu bat. Emen, -"muestra" lez- amar gogoratzen doguz.



*MARZELO GISASOLA EGUREN, "Marzelo Katu-baltza".*

*Gure gizaldiaren asieratik, "Katu-baltza" oso tipo xelebria izan zan Eibarren. Mutil zarra. Bere guraso ta arrebakin bizi izan zan Frontoï Zarreko eskolaren aurrez-aurre zeguan etxian. Bere aitak lez, Orbeanian biarra egin zeban. 1927. urtean, uztaillaren 17an, Santa Agedan il zan.*

## MARZELO INSPEZIÑUAN.

\*\*\* Egun baten, lartxo edanda zeguala, "reglamento"ren bat autsi zeban eta eruan zeben inspeziñora. Itxura danez, bera zaintzen zeguan aguazilla be ez zeguan baraurik. Gure Marzelok atia jo eta deitxu eitzen zeban:

- I, emen naok ni gero!!

Andik apur batera, jo atia eta barriz:

- I, emen naok ni gero!!

Eta ola ia gau guztian. Urte zebanian inspeziñotik, Eulogio Garatek, jakiñik zenbat deikada egin zebazen an barruan egon zanian, esan zetsan:

- Baiñan, Marzelo, zergaitxik ainbeste diar?

- Zera, aguazilla ni baiño mozkor aundixaguakin jeuan da, aztu ezeixan ni barruan neguanik.

## MARZELO ERLOJO BARIK

\*\*\* Sarri askotan, Katu Baltza biarrera berandutxo eltzen zan. Egun baten esan detsa Mateo Orbeak:

- I Marzelo, orduan etorri biok!

- Etxakat erlojurik eta orregaitxik batzuetan berandutxo eltzen nok.

Esaten dabenez, Orbea ugazabak erloju bat erregalau zetsan. Alperrik baiña. Marzelok lengo moduan jarraitzen zeban. Ola gauzak, Mateo Orbeak esaten detsa:

- Marzelo, oiñ badaukak erlojua eta zergaitxik ator berandu?

- Erlojua bai, baiñan argirik eztaukagu etxian eta erlojua ikusi eziñ...

## TORNU AURRIAN ILLUN

\*\*\* Astelen baten, lenengo orduan, -seitxerdietan- etzan jua Marzelo biarrera. Ez baiña Balentin Orbea ugezaba kontuan jausi barik. Bigarren orduan, -zortzietatik zortzitzerdientarakua- arrosatzeko denbora izaten zan. Agertu da bigarren orduan Katu Baltza. Andik laster urreratu jako ugezaga:

- Marzelo, gaur goizian illun-illun jeuan ire tornu aurrian...

Eta Katu Baltzak, begixak jaso barik, biarrari jarraituaz:

- Trumoia joko zeban ta...

## ZIDARRA URTUTZEN

\*\*\* Zapatu baten, etorri da ixa urtetzeko ordua eta kintzenarik ez zan agertzen. Orduan artu zeban Marzelok txorizo punta bat eta sartu zeban sutako laban.

- Zer eitxen dok orrekin Marzelo?
- Zidarra urtutzen, ez jatok bestiori ta...

## JUEZIAN, BOTIA-BOTA DOK

\*\*\* Marzelok "multatxo" batzuk zor zitxuan Juezian. Ala ta guztiz be, bolatokixan apusturik egin barik ez zan geratzen. Orretan tope egin dau juezakin:

- I Marzelo, zelan dok ori? Juezian zorrak ordaindu barik eta bolatokixan dirua jokutzen!!

Ta Marzelok:

- Badakik ba, juezian botia bote dok. Jokuan barriz, arriskua daok jasotzeko.

## ORGANU ZARRAKIN BE KONFORME

\*\*\* Eibarko parrokixan organu barrixa ekartzeko asmotan zebizen. Eta dirua ba-tzeko, Maria-ren alabak, Kongregaziñokuak, etxerik-etxe diru batzen asi ziran orretarako. Eldu ziran Katu Baltzaren etxera be. Zabaldu detse atia Marzelon arrebiak:

- Organu barrixantzako diru billa gatoz.

Eta Marzeleri zer eskabidekin zetozen esan zetsenian ,

- Esaixone, gu organu zarrakin be konforme giñala, elixako organuakin aspaldixan aztuta gaozanala.

## MARZELO SANTA AGEDAN

\*\*\* Azken batian, Marzelo nerbixuetatik izurratu zan eta, agiña ataratzeko ai-txikixiakin eruan zeben Santa Agedara. Andik egun batzutara, juan dira bera bisitxatzera lagunak. Ez jakin zelan asi konbersasiñua, -sala aundi aretan- eta, lagun batek esan zetsan:

- Ta Marzelo, ondo abil?

Eta Marzelok, salan zeguan erloju aundi bati begiratuaz:

- Emen, ondo, axe bakarrik dabik.

#### KERIZIA EGONGO LITZAKEK.

\*\*\* Rufo plaentxiatarra oso laguna zan Katu Baltzana. Mutil-zar eginda gero ezkondu zan plaentxiatarra, eta beti zeguan eskatzen Marzeleri etorri zedilla Plaentxiako bere etxia ikustera. Azkenian juan zan ba Marzelo eta etxia ikusten zeguala, esaten detsa Rufok:

- Marzelo, begiratik gorutz, or dauaz urdai azpiko eta lukainkak.

Marzelok, baña, lurrera bakarrik begiratzen zeban. Eta lagunak:

- Begiratik gora gizona, or daok zer ikusixa.

Ta Marzelok erantzun:

- Or goixan ezer balegok, emen beian kerizia agertuko litzakek.

#### DAUKANAK ERAKUSTEN JOK.

\*\*\* Marzelok konbitxa artu zeban azken orduan, sargueskalluekin afari-merienda baterako. Itxura danez, naiko jende inportantia zoian. Marzelok nai zeban arkondara zuri eder batekin agertzia, baiña arkondaria oindiok gertatzeko zeguan eta ez jakin noiz prest egongo zan be. Orduan, ipiñi dau bufanda aundi bat eta naizta bero egin, an agertzen da maira bufanda aundixorrekin.

Esaten detse lagunak:

- Zer Marzelo, gaixorik ago ala?

- Katarro aundixa jaukat eta medikuak esan jentak deskuidauta be ez kentzeko bufandia.

An zeguan Marzelo izardixa darixola. Alako baten, lagun bat konturatu zan fraka inguruan arkondara antzeko zegozer urtetzen zetsala.

- I Marzelo, arkondaria daukak bistan.

- Daukanak erakusten jok!!

## *KAIETANO KAREAGA GARAGARZA*

*Grabadore lez, oso puntarengua izan zan Kaietano. Bardiñ gizatasun neurrian be. Erritar filosofiaren jabe zan. Bere urteerak edo ateraldixak eibartarren artian bolo-bolo zabaltzen ziran. Ara emen batzuk: "tontuaren seniderik urrenengua arrua", "bada munduan gauza bat gitxiago daukanak geixago daukanari emoten detsana: lotsia", "munduan arrokeri asko sortu daben gauzia da espillua".*

*Artedun umoria zan Kaietano Kareagarena. Edozeri ateratzen zetsan puntia.*

*1965. abenduaren 16an il zan 88 urte ebazela.*

## GASTUARI BEGIRATU BARIK

\*\*\* Ikusi dau Kaietanok oso zeken famia zeukan industrial bat, bera bakarrik, Arrateko bidetik gora. Au izan zan Kareaga-ren "komentarixua":

- An joiak gure Urlixa Arrateko kamiñutik gora gastuari begiratu barik!!

## AINTXIÑAKO NOBIXIA

\*\*\* An zeguan Kaietano Casino Artista-ko leiotik begira, alako batian, emoziñoz, "alto y voz" esan zebanian:

- Ene an joiak nere aintxiñako nobixa maitxia!!

Kasinuan zegozen danak urreratu ziran leiora Kaietanoren nobixa maitxia nor izan zan jakin naixan. Desilusiñua eruan zeben ikusi zebanian Emilia Gisasola, Kaienen emaztia. Berantzat, axe zan aintxiñako nobixa maitxia.

## AMAN ALTZORIK BEZ!

\*\*\* Kaietanok ikusten zitxuanian ume txikixak euren kotxetxuetan amak bultzatuta esaten zeban:

- Gu be zeozer izango giñuazan alako kotxietan txikitxatik oitxu bagiñuazen. Guk, amaren altzorik be ez genduan izan: ama jostuna zuan-ta!!.

## ANKIA JAUAK ONENA

\*\*\* Bazeguan beiñ Kaien erren edo koje zan batekin diskuziñuan. Naikua biurrixa ei zan bere biotzian erren au. Gero, lagun artian, gizon a zala-ta, juizio au egin zeban:

- Uste juat, ez naok seguru baiña, arek ankia daukala onena.

## LENGUAK BE GASTATZEKO

\*\*\* Beiñ batian Plaentxiako errekadistiak gure eibartarrari:

- Kaien, Plaentxiako Urlixa gorantziak emon destaz zuretzako.

- Ondo daok, emon gorantziak berari be.

Andik apur batera, itxura danez aztuta errekadistia len be kunplidu zebala enkargua, esaten detsa barriro Kaietanori:

- Kaien, gorantzi asko emon destaz Urlixak zuretako.

Ta Kaietanok erantzun:

- Esaixok lenguak be gastatzeko dakadazela!!

#### SENIDIA ZENDUAN ALA?

\*\*\* Juan zan Kaietano bere alabakin "La Señora de Fatima" pelikulia ikustera. Bere buruan iñoiz etzan sartu zinian negar egin leikianik. Baiñan ara or bere aurrian emakume bat zeguala negar eta negar pelikula guztian.

Alako batian, itxura danez aspertuta ainbeste negarrekin, ikutu zetsan sorbaldan andriari eta esan zetsan:

- Zu andra, senidia zenduan ala?

#### BURUA ORDU LAURDEN LENAGO

\*\*\* Beste beiñ esaten detsa bere emazte Emiliak:

- Gizon, Don Pepe "Noche" abadia ikusi dot eta naiko itxura onian billau dot.

- Ixildu zaitxez andra, burua ordu laurden lenago daroia atzia baño-ta!!

#### MERKIAGO NAI DOK ALA?

\*\*\* Etorri jakon ezagun bat gerriko bati inzialak egiteko eskatzen. Enkargua amaitxu zebanian, etorri zan ezaguna gerriko billa.

- Zenbat dok iria?

- Ezebez

- Baña...

- Zer ba, merkiago nai dok ala?

#### EMON AL BANITXUKE!!

\*\*\* Ondo zagoz Kaien! -esan zetzan lagun batek-. Gogor ikusten zaitxut.

- Gogor bai azurretatik!

- Zenbat urte daukazuz?

- Irurogeitamar.
- Eztozuz emoten.
- Ai emon al banitxuke, asko gitxiagokin geratuko nintzakek!!

KAYETANO PESKAN

\*\*\* Juan zan Kaitxano Matxari erre kara aingira billa. Jaso ditxu frakok, atara dau boltsikotik tenedorra, eta, ur txikixetan sartuta, badabil aingira billa. Onetan ikusi dau arraiña, makurtu da beriala tenedora sartzeko eta zast! jausi jako erlojua uretara.

An zeguan ezagun batek diñotsa:

- Kaitxano! erlojua jausi jatsu uretara!

Ta Kaietanok:

- Orrek ez najok arduratzen. Erlojuak etxeztak iges eingo, aingiriak baii.



## *MARINO SOLAGUREN EGAÑA*

*Oso pelotari entzutetsua izan zan Marino. Naiz eta Bizkaian jaixo, bere urte geixenak Eibarren pasau zebazen. 1918. urtian jokatu zeban Bilbon, bere lenengo partidua. Bere urrezko garaia pelotari lez, 1922. urtetik 1926.era izan zan. Neurritik kanpoko aurrelari onek, Txapastakin batera, partidu asko jokatu zebazen. Ez bakarrik pelotari ona, baita be oso umore aundikoa izan zan. Marino Solaguren au, Uztaila edo julioaren 27an, 1942. urtian, il zan, 43 urtekin.*

## ORREK ALFABETUA JAUKAK!

\*\*\* Bazeguan Marino Urkusuko itxurri aurrian bere lagun batekin, Txapastakin ziur asko. Orretan pasau da beste eibartar bat euren aurretik oso gaixo itxura txarrakin. Esaten dau bere lagunak:

- Ori jota daok.

Eta Marinok:

- Jota bakarrik ez. Orrek alfabeto dana jaukak. "Jota" letra bat bakarrik dok.

## iESO SE HINCHA!

\*\*\* Bi pertsona, oso asarratuta, burrukan asi ziran. An inguruan agertzen zan Marino be, naiz eta berak burrukarik nai ez. Alperrik baiña. Arek bixak eskuetara eldu ziran, eta batak besakada aundi bat emon zetsan bestiari arpegixan. Kolpia artu zebanak:

- ¡Esto no queda así!

Eta Marinok:

- No, eso se hinchará.

## AZKENA NEU!

\*\*\* Esaten dabe, azkenengo urtietan, Marino oso kejati biurtu zala. Berak esaten ei zeban au be: "Nik txapel fabrikia ipiñi izan banejuan, umiak buru barik jaixoko zitxuazen".

Kejaka zeguan egun baten, beste batek esan zetsan:

- Ez ari kejau Marino, i baño txartuago bizi diranak asko ditxuk. Begiratik atzera, gizona!

Eta Marinok:

- Atzera begiratu esaten dok?. Ezin, baiña. Neu nok azkena ta!.

## KUADRO BAT GEIXAGO

\*\*\* Etorri zan, gerria pasau ondoren Marino bere Eibar maitxera. Eta, zelan ez! lenenguetako bisitxia Astelena pelota lekura izan zan. Arritxuta esaten zetsen bere lagunei:

- Karanbai, au eztok lengo pelota-lekua!. Au aunditxu eiñ dozue.

- Ez gizona, au lengo moduan daok. Onek lengo kuadruak jakaz.

Eta Marinok:

- Ez, onek -an zeguan Francoren kuadruari begira- gitxienez, kuadro bat geixago jaukak.

LAU PELOTA IKUSTEN...

\*\*\* Marinok pelota partidu larri bat zeukan. Ipuñ-batzailleei kasu eginaz zabaldu zan, pelota-lekuan, Marino edanda zeguala, ta jakiña, dirua bere kontra atera zan. Baiñan Marinok partidu zoragarri bat egin eta irabazle geratu zan. Etorri jakon Bidarte eta esan zetsan:

- Sekula eztok alako partidurik eiñ!. Zelan konpondu aiz uts bat bera eiñ barik joko guztian?

Ta Marinok, bengantzaz:

- Zelan eingo najuan uts ba? Jendiak leporatu jestan mozkorrakin, lantzian lau pelota ikusten najitxuan, eta naitxa-naiez, txortara besakadia botata, lauretakoren bat azertau eitxen najuan...

NEU BE PROGRAMAN NAGOK.

\*\*\* Bein batian Mondragones atzelari zeukala, partidua aurrera zoian, baiña gure Marino estreñatzeko aurkitzen zan. Joku guztia mondragotarrak zaroian. Marinori pelota bat be ez zetsan lagatzen. Azken batian, aspertuta, diadar egin zetsan Mondragonesari:

- I Bautista, ni be programan naok!.

ARRAÑAK, EROSI ZEUEK NAI DOZUENA!

\*\*\* Beste beiñ jua zan Marino Maltzako erre kara peskara. Ipiñi detsa kañiari txitxaria, baiñan arraiñak ez zeben amurik jaten. Aldatu dau txitxaria, bota dau barriz arixa, eta bardiñ, uts oinguan be. Eta ola denpora morduan. Etzan jausten arraiñ bat bera be. Orduan, aspertuta eta asarratuta, botatzen dau errial bat erre kara eta diñotse:

- Arraiñak, erosi zeuek nai dozuen txitxaria!

LIZENTZIA EZ, PAZIENTZIA

\*\*\* Marino peskan ari zan Maltzan. Orretan eta onetan, etorri jako atzetik guardia

zibilla eta esaten detsa:

- I, Marino, badakak peskarako lizentziarik?
- Lizentzia?
- Bai, lizentzia. Peskan jarduteko lizentzia biok.

Marinok:

- Lizentzia, ez. Peskan biar dana pazientzia dok.

SAPABURUAK ARDAUAN!

\*\*\* Biar bada, ezta egixa izango, baiña pasadizo au be Marinoren "palmaresian" ipintzen dabe. Sartu ei zan tabernan gure Marino, eta eskatu zeban txikito bat. Etara detse, eta gure pelotarixak, disimulu guztiakin, bota ditxu basora sapaburu batzuk eta asi da kejaka tabernarixari:

- I, eztagok deretxorik au eitxeko! Sapaburuak arduan!

Tabernarixak estututa:

- Ixildu ari mesedez, emongo deuat beste baso bat duan. Ez eik esan iñun zer pasau jan.

Eta bere andriari:

- Ori andra sistriñori! Esaten jetsat ba nik ez botatzeko erreko urik, bota-tzeko txorroko ura, baiñan alperrik!

*BRUNO LARRAÑAGA EZENARRO, "Gantxus"*

*\*\*\* Bruno onek "Gantxus" zeukan gatzizena. Gizon "popularra" zan denpora artako Eibarren. Isasiko "Kiputxanian" batzen ziran "los 13" izeneko taldiaren sortzaillietako bat zan. Ogibidez, "biajantia", naiz ta Errebaleko "Trinketian" denporaldi luziak egin karta jokuan. Soiñez, gizon zabala eta luzia. Baitxa sasi-letraua be, abogadu itxura guztiakin. Eibarren il zan 1955. urteko martxuaren 4an. 63 urte zeukazen il zanian.*

## KAZARIXEN "FALLUAK" ATARATZEN

\*\*\* Lagunarte aundi baten, an zeguan "pontifikatzen" gure "Gantxus". Momentu aretan, kazarixekin sartzen zeguan.

- Onek kazarixok guzurra besterik ez jakek. Gaiñera, kazia aitzeki artuta juergara juaten ditzuk eundik larogitamar.

Ori entzunda, kazari amorratua eta era berian, gizon zintzo ta zuzena zan Peli Aldazabal jaiki jakon asarre.

"Gantxus"ek , ixildu zeban:

- Ik eztaukak zertan kejau. I "diezporzientuan" sartzen aiz.

## "GALLINERUAN" APOSTUAK EGITEN.

\*\*\* Gantxus-i gustatzen jakon Astelenako pelota partiduetako apostuetan parte artzia. Gauza bat, baiña, ez jakon gustatzen: korretajia pagatzia. Ori zala-ta pentsau zeban, aurrerantzian, "gallinerora" igo, eta, an, bere ingurukuekin, apostuak egitia korretaje barik.

Domeka baten, an zeguan "Gantxus" gallineruan, lenengo filan. Betik ikusi dau Egia pelotarixak, eta esatetsa:

- Zer "Gantxus", i or goixan?

- Bai mutil, emen, 40 duro jokutzen baitxuk, 40 kobratzen ditzuk. Or beian, barriz, merma gogorra daok.

## FALLUAK ORDAINDU

\*\*\* Beste beiñ kartetan ziarduan lagun batzuekin Errebal kaleko Kafe Trinketian. Don Isaak Biteri medikua be antxe zeguan begira. Orretan, onetan, "Gantxus"ek fallo aundi bat egin zeban, eta Biterik, eskuak burura eruanaz:

- Baiña, "Gantxus", ori zelan eiñ leikek!

Eta "Gantxus"ek:

- I, Biteri, gauza bat esan biar deuat: emen, jokuan, falluak pagau eitxen di-txuk. Zuek medikuok, barriz, falluak be kobrau eitxen dozuez.

## PARRA EDO IRABAZIKO JOKUA

\*\*\* "Gantxus" etzan bero-berua Eleiz gauzetan. Gaixotu eta naiko gaizki jarri zanian, lagun bat juan jakon Elixakuak artzeko proposamena eitzera.

- "Gantxus", i jokalaria ona beti izan aiz. Ara ba, ni iretzat joku bat ekartzera natok, parra edo irabazteko jokua.

- Zer joku dok ori?

- Joku onetan Elixakuak artu biar ditzuk. Geroko bizitzarik badaok, jokua irabazten dok. Ez badaok, parra.

Eta "Gantxus"ek:

- Badakik joku ona ipintzen deztala? Etorri deilla Don Emilio abadia!.

#### A NI BAIÑO LENAGO ELDUKOK

\*\*\* Bazoian "Gantxus" Bilbora trenian. Eta trena urtetzera zoziala, etorri jakon betiko "pelma" bat.

- I, "Gantxus", oso urgentia dok eta, eruangostak karta au Bilbora?

- Alako urgentia dok?

- Bai, oso prisakua.

Eta "Gantxus"ek:

- Emoixok orduan, makinistiari. A ni baiño lenago eldukok eta.

*EUSTAKIO ARRIZALA ZULOAGA, "OTUA"*

*Biar bada, bere izen eta abizenekin askok ez zeber ezagutuko. Bai baiña "Otua" gatzizenakin.*

*Orbeaneko biargiñ ona izan zan "Otua", batez be gubillian. Artistia zan dibujo kontuan. Baita be umore onekua eta zoli-zolixa bere urteeretan.*

*Eibarren il zan 1953. urteko maiatzaren 11an, 65 urte zeukazela.*



## BEDAR TXARREN BAT JAN

\*\*\* Orbeaneko fabrikan, "Otua"kin biarra egiten zeban "Kuixa" gatzizena zeukan beste eibartar batek.

Egun baten, "Kuixa" gaixorik zeguala eta, esan zetsan "Otua"ri kontramaixuak:

- I, "Otua", "Kuixa" gaixotu dok eta jarri ari makiña onetan bere orde.

"Otua"n urteeria auxe izan zan:

- Gaixotu ein dala? Zer ba, bedar txarren bat jan jok ala?

## ZER LORA KLASE?

\*\*\* Beste beiñ, kontramaixuak emon zetsan Otuari kopixa bat, rebolber baten dibujo batzuk eitzeko aginduaz. Baziarduan Otuak, baiñan, itxura danez, ez kontramaixuaren gustora.

- Zer eiñ dok emen? Barrua urratuta laga detsak. Orreri lorak atara biar jakuaz!

Eta Otuak:

- Zer lora klase? Larrosak ala krabeliñak?

## ASKO JAN BAKUA

\*\*\* Egun baten, -umien gauzak- "Otua"n semiak jo egin zeban guardia zibil baten mutikoa. Ori dala-ta, etorri da "Otua"rengana asarre eta arpegi zorrotzakin guardia zibilla.

- Su hijo de Vd. le ha dado una paliza al mio. Yo les enseñaré a Vds. lo que es bueno! En este pueblo he de comer vivo a alguien!

"Otua"n erantzuna:

- Ikusten dok, bai, oiñ arte eztuala asko jan...

## EGAZKIÑEN ETORRERIA ABIXATZEN

\*\*\* Gerra denporan, eta Orbeaneko fabrikan, "abioak" Eibar bonbardeatzera zetozela abixatzeko, "Otua" aukeratu eben. Baiñan, nunbaitx, berak txistua jo orduko, egazkiñak agertzen ziran zeru goixan. Au ikusitxa, "Otua"k esan zeban:

- Mutillak, emendik aurrera, gabillaratik gorakua ikusten dodanian joko juat txistua.

## ORRAZI ESTUA.

\*\*\* "Sosola" eta "Otua" biargiñ lagunak ziran. Egun baten, an zeguan "Sosola", estu ta larri, artuak kokua zeukalako. Esaten zeban:

- Gure artuak zorrixakin dauaz, kokua jaukek. Zer erremedixo billau leikek orren kontra? "Otua" k:
- Zorrixakin badauaz, onen-onena orrazi estua ibiltzia dok.

## "OTUA" N KONTRA KEJAK

\*\*\* "Otua" k esan ba zeban esan "Kuixa" k bedar txarren bat jan ete zeban, autoba-t-zailliak jua ziran ugezabagana, bengantza moduan, "Otua" ren kontra au eta bestia esanaz, batez be dibujogintzan lorak gaizki eitxen zebazela eta esanaz... Ugezabak deitxu zetsan "Otua" ri:

- I, "Otua", iregaitxik kejak jaukadaz. Lorak gaizki eitxen ei ditzuk... "Otua" k bazekixan nundik zetorren gauzia, eta erantzun:
- Neguan zelan nai dozuz bat udabarriko lorak eitxia? Gaiñera, ondo eingo banitxuke, benetako lorak diralakuan, kuixen batek jango litxukez... Ugezabak emon zetsan barriari.
- Tira, "Otua", juari azkar eure lekura, irekin alperrik dok eta.

## KONPASA GALDUTA ASKOTAN

\*\*\* "Otua" n onduan biarra eitxen zeban gizon txiki, potolo eta zur gorridun batek. Ardau botillian oso laguna zan. Egun baten, an zebillen, tallarrian, erremintxa artian zeozer billau naixan.

- Zer pasatzen jak? -esan zetsan Otuak-.
- Konpasa galdu juat.

Ta "Otua" k bizkor asko erantzun:

- Sarri ibiltzen aiz i konpasa galduta!

*FELIX GORROTXATEGI GISASOLA, "FELIX LEGARRE"*

*Eibarko "tipo" xelebria izan zan Felix Gorrotxategi Gisasola. Jendiantzat, barriz, a zan "Felix Legarre".*

*Ollar kontuan, -batez be ollar jokuan- oso aitxua zan. Eibarko beste gizon xelebria izan zan "Kaporala"ren adiskide aundixa.*

*Umoretsua bere bizitzan eta filosofia askoko urteerak zeukazena.*

*1955. urtean, abenduaren lenengo egunian, 80 urte zitxuala il zan.*

## ARBOLA DANAK EBAGI.

\*\*\* "Asta Zarra", Felix Legarren lagun aundixa zan. "Asta", baiña, udabarri eta udazken danetan gaixorik jausten zan.

Egun baten, gaixorik egon ondoren, batu dira Kalbetongo "Bar Bodega"n Felix eta "Asta".

- Ba ator "Asta"?
- Bai, orrixan urteeran eta jausterakuan, txarto ibiltzen nok.

Ta "Felix Legarre"k:

- Nik bajaukat orrentzat erremedixua.
- Ze erremedixo?
- Arbola guztiak ebagi.

## ESNIA BE ARDAU GUSTUAKIN

\*\*\* Beste egun baten, badagoz berbetan "Felix Legarre" eta "Kaporala".

- I, Kaporala, Santaiñes-en zer jaten dozue?
- Danetik. Normala. Gaiñera ganaua be bajaukau.
- Zer jateko emoten detsazue ganauari?
- Ara ba: bedarra, birriña eta ardaua be bai.

Felixen komentarixua:

- Ik daukak suertia, Kaporala! Esnia be ardau gustuakin eraten dok.

## ORRIXEKIN TAPAUTA.

\*\*\* Tiro pitxoian txapeldun izan zan Bitxor Sarasketa gaztiak konbidau zebazen Felix Legarre eta Kaporala txikito batzuk artzera. Bitxorrek esaten detsa:

- Akordatzen zara, Felix, kazara batera juaten giñanian?
- Bai, nik, tirua-tiro, zozuak magal ta guzti botatzen najitxuan.

Orduan urten zeban Kaporalak:

- Ala izango zuan. Orrixekin tapauta geratuko zitxuan zozuak, sekula ez zeban ezer ekartzen beintzat.

## ESANGO DEUAT ETZI

\*\*\* "Felix Legarre" naiko "astronomua" zan zer egualdi egingo zeban jakiten.

Beñ batian, etorri jakon bat adarra jo naixan:

- Zu, Felix, bixar ze denpora ingo dau?

Eta Felixek:

- Esango deuat etzi.

#### BURUAUNDIXARI ERANTZUN GOGORRA

\*\*\* Eibartar buruaundi estraperlista bat Felix-en kontura barre egin naixan zebillen. Neurritik kanpora be pasau zan, eta naiko faltau zeban gure Felix. Au, baiña, etzan ixildu eta esan zetsan zorrotz:

- Ixildu ari! Ire moduko buruaundixak, San Juan bisperan, puxigiakin urtetzen juek Aiuntamentu azpitik!

#### MEDIKU KASKARRA

\*\*\* Mediku batekin egin dau tope Felixek Kalbetoi kalia. Momentu aretan, gaiñera, Felixek ollar bat zaroian eskuetan. Eta medikuak:

- Ba oia Felix, eure olluakin...

Felixek, arritxuta:

- Olluakin? Mediku argiak jaukauz! Ollua eta oillarra distingitzen ez dakixanak, zelan jakingo jok eztula ala pulmonixia dan?

*JAZINTO ARRILLAGA GISASOLA, "KAPORALA".*

*"Kortazo" kontratistaren semia zan gure "Kaporala". Tipo xelebria Eibarren. Gaurko egunian, "pasota" lez ezagutuko geunke. Bizitzaren filosofia asko zekixan, biar gitxi egiteko. Urteera xelebriak zeukazen. Esaten zeban bere bizitzaren "fallua" bizi biar zebazen urtiak ondo ez kalkulatzia izan zala. Orregaitxik jan zebazen, -biar baiño lenbere diru guztiak.*

*Eibarren ill zan 1953. urteko maiatzaren 11an. 63 urte zeukazen.*

## DIRU ASKO GASTAU

\*\*\* "Kaporala"k Donostian bete zeban bere soldautza denporia. Ez zeban oso gaizki pasau, ango etxe baten apopillo egon zan eta. Itxura danez, gastu kontuan neurritxik gora zebillen. Orregaitxik, illeko kontua oso aundixa zala pentsatzen zebalako, bere aita juan zan Donostiara etxekoandre eta semiakin berba eitxera.

- Zelan leike ainbeste diru gastatzia?, esaten zeban Kaporalan aitxak.

Etxekoandriak:

- Badakizu ba, gaztia da ta...asko biar gaiñera, ta...

Kuartuan zeguan semiari deitxu zetsan:

- I, Jazinto, etorri ari ona. Egixa dok diru guzti au, kontuak diñuana, gastau eiñ duala?

Eta Jazintok, mantso-mantso, sosiguz-soziguz, bere oitxura zan lez:

- Zu aitxa, Jo-se-pak ez-tau se-ku-la gu-zu-rrik esan e-ta au be egi-xa izan-go da.

## MOTOTXENIAN

\*\*\* Kaporala ta bere lagun bat juan dira Mototxenera. Edan dabez bi bermut eta juan dira kalera ordaindu barik. Mototxek, ikusitxa orduan be sartu zetzela zirixa, diño,

- Ez ba! Gaur pagau biarko juek!

Ordubi terdietan ba datoz barriz bi lagunok eta eskatzen dabe bi txikito. Mototxek:

- Lenengotik lengua pagau!

Kaporalak:

- Ara ba, konfundidu ei aiz. Guk, oiñ, etxakau dirurik. Len bai.

## URA ERATEN ARDANTZAN.

\*\*\* Egun baten, ikusi dau "Txanboliñ"ek "Kaporala" Ardantzako ura eraten.

- Ze, "Kaporala" ura eraten?

- Bai, atzo au eiñ banajuan, oiñ ez najuan eiñ biarrrik eukiko. Ta eu nora oia "Txanboliñ"?

- Mendira, ia ibilixaz, meetzen naizen.

- A Txanboliñ, meetzera mendira! Etorri ari ni apopillo nagon lekura: an meetuko aiz laister!

## PAGATZEKOTAN, BADAGON LEKU OBERIK.

\*\*\* Azken urtietan, "Kaporala" Santaiñesen, ia jausten zeguan basarri baten bizi izan zan. Burutik be ez jakon pasau zeozer pagatzerik errenta moduan. Orrela gauzak, egun baten baserriko etxeoandriak esan detsa:

- Zu, Jazinto, errenta moduan zeozer pagau biakozu...

"Kaporala" k:

- Pagatzekotan badaonaz leku obiak. Por ejemplo, an daon "Hotel Comercio" a.

## KLIENTE BAT GITXIAGO

\*\*\* Kaporala ta beste bere lagun bat oitxuta zegozen "Mototxenian" edaten pagau barik. Beti, baiña, zeuken aitzekiren bat epetan edateko. Aspertuta, egun baten, Mototxek esan zetsen:

- Kanpora emendik! Edan eta sekula pagau ez! Olan dok ala?

Urtetzerakuan, "Kaporala" k:

- I, Mototx, euretzat txarrago: bi kliente gitxiago daukaz.

## NONDIK JAUSI BIOK ARDAUA EMOTEKO?

\*\*\* "Kortazo" n obra batetik, aiñ zuzen be laugarren pisotik, jausi zan egun baten biargiñ bat. Eta ugazabak, goitxik deitxu zeban, esanaz:

- Emon orri ura!

An inguruan zeguan gure "Kaporala". Esan ei zeban:

- Zelan dok au? Zenbatgarren pisotik jausi biok ardua emoteko?

## 500 PEZETAKO BILLETE FALTSUA

\*\*\* Gabe baten jua da berandu etxera gure "Kaporala". Andria, oetik asi jako asarre eitxen:

- Bai, diru guztiak gastauta zatoz etxera. Lotsagabia!

- Ez andra, or lagatzen detsut mesilla gaiñian 500 pezetako billetia.

Baretu zan apurtxo bat andria. Ez denpora askorako baiña. Senarran fetxorixak ikusitxa, laster asarratu zan berriro be:

- Zu, Jazinto, faltsua zara, oso faltsua!



Jazintok orduan:

- Faltsua bai or mesilla gaiñian dauan billetiai.

Olaxe zan: Txokolate fiñetan agertzen diran kromuetako billetia laga zetsan eta.

*ANDRES URIONABARRENETXEA, "PUNTERET"*

*"Punteret" oso torero zalia izan zan gazte denporan, gero, pelota munduan askoz geixago murgildu bazan be. Domekero, "Astelena" pelota-lekuan agertzen zan. Gizon "kuriousua" benetan. Ondo baiño obeto jantzitza ibiltzen zan. Katedratiko itxurakua berbetan. Ondo bizitzen zekixana. Txispa eta erritar filosofiaduna. Eibarren il zan 1979ko uztailaren 7an 82 urte zeukazala.*

## AREN BERBIAK INDARRIK EZ

\*\*\* "Punteret" oso famatua zan Eibarren. Egun baten, itxura danez, mingaiñak igez egin zetsan eta geiegitxo esan zeban lagun bategaitxik. Etorri jako au eta diñotsa:

- I, zer jardun dok esaten neregatxik?

- Tira, Bixente, esatetsa Urlixak, ez adi ola jarri. Ik eztakik ala nere berbiak eztaukala indarrik?

## GUARDIA ZIBILLAK ZAINTZEN

\*\*\* "Punteret", eibartar moduan, apurtxo bat "farola" zan eta batez be umoretsua. Berba errezekua zan eta naiko gora jasotzen zeban bere abotsa. Beñ batian, bera zeguan tabernan suertatu da kanpotar bat eta "Punteret"en "parlamentua" entzunda, galdetu zeban:

- Ori gizonori nor dok? Ori eztok edozeiñ!

Esan zetsen Punteret-i zer galdetzen zeban gizon arek eta orduan, berak, atara-tzen dau boltsillotik ontzako urria, zidarrezko bi ogerleko eta milla pezetako billetia eta diñotse:

- Esaixozue orri ni auxe naizela!

Orregaitxik, naiz ta broman, esaten zeban Punteret-ek:

- Guk, dirua daukagunok, guardia zibillak euki biarko gendukiaz zaintzen metrotik metrora.

## PROLEMARIK EZ DIRU KONTUAN

\*\*\* "Punteret" gustora bizi zan bere giruan. Ez jakon ezer falta. Esaten zeban:

- Ni konforme nagok nagon moduan. Kosme Beistegik eruan nai izan jestan Mejiko-ra an asko geixago irabaziko nebala-ta. Nik, baiña, pentsau bez juaterik! Ondo bizitzeko, nere itxuran, "kafe konpletua" egunero artuaz, etxaukat Eibartik kanpora juan biarrik. Eta umoretsu esaten zeban au beste au be:

- Nik etxakat prolemarik dirua gastatzen dotenian. Juaten nok etxera, eta tabako petakiakin egiten dana, orixe bera egiten juat: bete barriz.

## ENPRESIAK IRABAZI

\*\*\* Beiñ, Eibarko "Astelena" pelota lekuan, "finaleko" partidu famatu bat jokatu zan jende izugarriakin. Partidua amaitxu eta urtetetzerakuan, Isasi kaletik bera zoian batek galdetu etsan:

- "Punteret", nok irabazi jok?
- Enpresiak, izan zan Punteret-en erantzuna.

#### GU EZ GARA ITXURIAN JABE

\*\*\* Arratsalde aretan, "Astelena" pelota-lekuan, "Punteret" eta beste lagun batek, pelotarixei begixa kendu barik, baiñan baitxa be pelota lekuko korredorien abotsei, pentsau zeben "través" ona egiten zebela eta euken diru guztia jokatu zeben. Zoritxarrez, dana galdu. Amaitxu zan jokua -bi jokuak- eta lotsatuta, lurrera begira, iñori kasurik ein barik, Untzagarutz jo biarran, juan dira Isasirutz -merkiago ibiltzeko asmotan-. Bidian zoiazela, urreratu jakue eskale bat, limosna eske. Eta auxe erantzun zetsan "Punteret"ek:

- Zu, andra, ez pentsau gero gu itxurian jabe garanik!

#### FABRIKAN PAGAU BIOD

\*\*\* Domeka goiz baten, an zeguan "Punteret" Bar Tupi-ko barra ertzian beste lagun batzukin. Konturatu barik, sartu zan beste ertzetik bere tallarreko ugazaba. "Rondia" pagatzerakuan, esaten detsa Punteret-i tabernarixak:

- Pagauta daok.
- Nork pagau jok pa?
- Ire tallarreko ugezabak.

Orduan, "Punteret"ek, esaten detsa beste puntan zeguan ugezabari:

- I, emen eztaukak zertan pagaurik. Ik, tallarran pagau biok eta ondo gaiñera!

#### TXOFER ZEIÑEK EIÑ BIAJOK?

\*\*\* Bazeguan "Punteret" tabernan. Orretan pasau dira gazte talde bat manifestaziñuan kalez-kale, eztakitx zer eskubide eskatzen. Orduan "Punteret"ek:

- Au dok au izatekua! Gu be izan giñuazan naiko buru ariñ, baiñan beintzat biar apur bat eitxen genduan. Onek barriz, ezer egin barik bizitzia nai juek. Eurok auto onakin eta gaiñera, txoferra aldamenian.

Beste batek orduan esaten detsa: Eta ori ez dozu ondo ikusten?

Punteret-ek:

- Bai, eta txofer zeñek eiñ biajok?

*MARZELO LARREATEGI KAREAGA, "BALBOTIN"*

*Oso errikoia zan "Balbotin". STAR-reko biargiña urte askuan. Ixilla zan, baiñan zentzun aundikua, eta Eibarren esaten dan lez, "bote prontuan" gauzei eta pertsoneri punta ataratzen zekixana.*

*Eibarren, 1966. urteko uztaillaren 25ian ill zan, 51 urtian mundu onetan bizi izan ondoren.*

## DISKUZIÑUAN

\*\*\* "Balbotin" eta beste eibartar bat diskiziñuan ari ziran, eta, itxura danez, zarata askotxo atarutzen. Etorri jakue alguazill bat:

- Zer mutillak, zer esaten diarduzue?

"Balbotin"ek:

- Guk auxe besterik ez genduan esaten: "Gosia gora doiala eta pesetia bera".

## EURE MUZTURREKIN JATEKO

\*\*\* Egun aietan, "Balbotin" eta bere arrebia apurtxo bat asarretuta zegoen, alkarri berba juxtuak bakarrik esanaz. Eta muzturrak be agertzen ziran noizbeinka. Gauzak orrela zegozela, "Balbotin"ek erosi dau pipar pote bat eta gabian laga zeban bere kuartoko mesanotxian. Urrengo egunian, esaten detsa arrebiak:

- I, Marzelo, zertarako ekarri dok pipar potia?

Marzelok, beriala:

- Eure muzturrekin jateko!

## KARRETILLIA GITXI BETETA

\*\*\* STAR fabrikako biargiña zan "Balbotin". Egun baten, prisaka, pieza mordoxka bat nikelera eruan biar ziran. Bazaroiezen karretilletan. "Balbotin"ek ez zeban geixegi bete bere karretillia. Konturatu zan ugezaba eta esaten detsa:

- I, Balbotin, ori karretilliori bete leikek geixago.

Balbotin-ek berialako baten:

- Baitxa zapatuko sobria be!

## BELARRITXAKUAK DITXUK ALA?

\*\*\* Beste baiñ STARren bertan, flejez beteta etorri zan kamioi bat ustutzen zebizen biargiñ talde bat. Danak, gitxienez bi bulto aundi zaroiazan karretilletan almazenera. Gure "Balbotin"ek baiña, bat bakarra zaroian. Konturatu da ugazaba eta esaten detsa:

- Ezin ditzuk bi eruan ala?

- Zer ba, belarritxakuak dira ala?

## BAI ERMURUTZ

\*\*\* Egun baten, Juan da "Balbotin" ugezabangana. Auxe eskabidiau eitxen zetsan: jornala altzatzeko. Ugezagak orduan:

- Baiña, ez ago konforme irabazten duanakin? ALFAtik urrengo geu gaitxuk barren!

Balbotin-ek zoli-zoli:

- Bai, Ermurutz!

## AMAR MILLOIDUNA ELGETA KALETIK GORA

\*\*\* "Balbotin"i galdetu zetsen beiñ:

- I, "Balbo", bost milloikin bizi leikek?

- Etxakixat. Nik dakitxena dok, lengo egunian amar milloidun bat eruan zebela Elgeta kaletik gora kanposantura.

## ILL EIÑ BIAR NOK ALA?

\*\*\* Eibarren oitxuria zan batedonbat naiko gaixo zeguanian, ari bisitxa eitxia txanpan botilla bat eruanaz. Egun baten, senar-emazte batzuk Juan ziran bera ikustera, eta zer eruango-ta, beste ezerekin pentsatu barik, pastel batzuk eta txanpan botillia eruan zetsen.

"Balbotin"ek txanpan botillia ikusi zebanian, bildurtuta, esan zeban:

- Zer baiña, ill eiñ biar nok ala?



## *PATXIKO LARRAÑAGA BOLINAGA*

*Pelotazale amorratua izan zan Patxiko Larrañaga. Barberito eta Del Val-en botillerua. Sopotistia ogibidez. Bere urteera xelebriak Eibarko alde batetik bestera zabaltzen ziran. Eibarren il zan 79 urtekin 1973. urteko nobienbriaren 23an.*

## EZTETZAK ASKO LAGA ANDRIARI!

\*\*\* Afalostia zan. Bazeguan Patxiko "Txaltxa"nian kafia artzen. Orretan etorri jako Markiegi sastria, eta esaten detsa:

- I, Patxi, Durangora juaan biar juau pelota partidua ikustera. Neuk pagauko deuat entradia eta taxisa. Ori esan bezaiñ laister, atara zeban Markiegik boltsikotik billete pilla aundi bat.

Orduak Patxikok:

- Eztetzak andriari diru asko laga!

## BERUNEZKO TXAPELA

\*\*\* Patxikok eta Angel Trebiñok, denpora baten, soziuak ziran eta sopleteko tallarra zeuken. Ekarri dabe tallarrerako makiña barri bat. Etzan, baiña, erraza aren mekanismua aitzia. An zebillen Patxiko burua apurtzen. Orretan, etorri da Trebiño, eta esaten detsa:

- Patxiko, artu detsak maña makiñiari?

- Ez ba oindiok.

- Kantzaik burua!

Urrengo egunian, etorri da barriz, baiñan ez zeban Patxikok ondo manejatzen makiña. Trebiñok barriro:

- Kantzaik burua!

Bixamonian be, barriz entzun zebanian burua kantzatzeko, esan zetsan Patxikok:

- Kantzaik burua? Zer nai dok ba, berunezko txapel bat buruan ipintzia ala?

## AGIÑ POSTIZORIK BEZ!

\*\*\* Gaba baten,alkartu da Patxiko bere lagun batekin:

- Ondo abill Patxiko?

- Primeran. Ementxe nagok diru guztia gastau arte.

- Larregi eztok?

- Ez, mutil. Nik ez juat pentsatzen gerorako agiñ postizorik be lagatzerik.

## TUNELA EITXEKO BARAUTZA

\*\*\* Bazeguan Patxiko Arikixaneko dendan. Orretan etorri zan gazte bat eta ogei milimetroko barautza eskatu biarran, eskatu zeban ogei metrokua.

A entzun ebanian, Patxikok:

- Zer, ugezabak tunela eiz biar jok Eibartik Durangoraiño ala?

NUN SALDU A DANA!

\*\*\* Patxiko ta bere lagun bat sartu dira "Mari Katillu"n tabernara. An ikusi zitxuen gazte batzuk jo ta su karta jokuan. Orretan esan zetsen lagunak:

- I, Patxiko, orrek gaztiok biarran alako amorrua ipiñiko baleikiek...

Ta Patxikok:

- Ta zeinek saldu arek danak?

BARZELONAN ZIAR

\*\*\* Patxiko ta Angel Trebiño jua dira Barzelonara. Gabe baten, Ramblas-etan ziar zoiazela, zigarro pakete bat erosterakuan, konturatu zan an askok zigarruak banaka erosten zebezela. Arritxuta, esan zetsan Angeli:

- I, Trebiño, gu "al día" bizi garala? Emen, asko "al segundo" bizi ditzuk!.

Gaba aurrera zoian, eta naiko kantsauta Trebiñok diñotsa:

- I, Patxi, lo eiz biarko juau...

Eta Patxikok:

- I, Angel, ni ez nok lo eitxera etorri Barzelonara. Nik eingo juat lo Eibarren.

## *PLAENTXIATARREN GATZA*

*Plaentxiatarrak ezagunak dira leku askotan. Ezta gitxiagotarako ezagutzen danian arek daukaten umore eta espiritu jatorra. Lengo plaentxiatarrak batez be, famili bakar eta oso batua egiten zebeu. Etzan falta umorerik beren artian. Gatz askoko jendia da soraluzetarra. Emen, -beste millaren artian- agertzen doguz Plaentxian gertautako pasadizu batzuk.*

## URA LAGATZIA ERREZA

\*\*\* Plaentxiako mozkor bat, ardauz ple-ple eginda, jausi zan bein batian eta gitxi-gaitxik ixa burua apurtu zeban. Medikiak zauriak osatu ondoren esan zetsan lagun moduan:

- Baiña, gizona, zer ganora dok ori! Beti mozkortuta! Ganauak be naiko ur edaten dabenian, laga egiten juek, eta ik...

Orduan mozkorrak:

- Baita neuk pe ura!

## JUIZIUA GALDU.

\*\*\* Roke Trebiño, gaixorik egon barrixa, ondiok naiko makal sentitzen zan. Baiñan bazetozen Bergarako Pentekostesak, eta etorri jakoz lagunak:

- I, Roke, urtero moduan Bergarara juaan biar gaitxuk.

- Ez nagok pa ondo...aurten ez juat uste juateko gauza izango naizenik.

Baiña ainbeste bultzau zebeu lagunak, -naiz eta bere andria kontran euki- azkenian be, juaan egin zan.

Ez ei zebeu asko eran, baiñan, itxura danez, gitxixak be kalte egin zetsan. Bueltakuaan ziran kontuak! Bi lagunenu artian eruaan biar izan zebeu bere etxera. Jo dabe aldabia.

Urten dau andriak, eta ikusi zebeuian bere gizona "pelaje" arekin, esaten detsa:

- Ene, gizon, juaan zara Bergarara ta galdu dozu juiziua!

Rokek kolpera:

- Andra, ez estutu, Pamplonara errekurridukou!

## ERREKADISTA FIÑA

\*\*\* Plaentxiako Urlixak torloju pilla bat biar zebeu. Prixako biarra zan. Kosta ta abar agindu zetsen andik iru egunera eginda egongo zirala. Etorri da irugarren eguna, eta lehenengo orduan bialdu dau errekadistia.

- Ugezabak esaezta emoteko torlojuak.

Fabrikantiak, asarre:

- Zer uzte jok orrek, txarri arraixu orrek, txurruak dirala ala? Ganorabako txotxolua dok ori! Esaixok arratsaldian egongo dirala.

Buelta egin dau errekadistiak eta esatetsa ugezabari:

- Esaezta eiñ barik daozeu.

- Eiñ barik daozeu!!

- Bai, eta geixao be esaezta: txarri bat zarala, txotxolo ganorabako bat.

- Eh! Ori esan deuk?

Irakitzen, artu dau telefonua eta deitzen detsa torlojuginari:

- Zer ganora dok ori! Noizko egongo ditxuk torlojuak? Gaiñera ik esan dok ni txarri bat eta txotxolua naizela!

- Nork esan deuk?

- Errekadistiak.

- Iño! Errekadista fiña daukak benetan!

## PLAENTXIAKO MATEMATIKAK

\*\*\* Sartu dira iru lagun Meltxorren tabernara.

- Estefania - dinotse etxeoandriari- ekarri iru bokadillo eta ardau baso aundi bana.

Kontua ordaintzerakuan, etxeoandriak 23 peseta eskatu zetsezen. Iru lagunak etziran konforme. Euren ustez, 21 edo 24 peseta izan biar zan kontua. Baiña au izan zan Estefanian erantzuna:

- Ara, mutillak, nik kontuan egiten jitzuadaz "uno con otro". Batakin irabazi eta bestiakin galdu, baiñan zuen kasuan be gauzia garbi dao. Begira, zuen kontua zazpiña peseta dok. Eta, orduan papera eta lapitza artuaz, diñotse:

- Ara, siete por tres 21 ditzuk, eta "dos de llevada" 23.

## PLAENTXIAKO FERNANDEZ

\*\*\* Oso ezaguna zan Plaentxian gure Fernandez. An jaixotakua zan. Eta Eibarren azia. Obeto esateko azi iñun be ez, oso txikia zan-eta. Berak esaten zebanez, oso ezaguna zan mundu guztian. Bere eibartar lagunak, ez zegozen ziur. Baiñan juaten ziran leku batera eta bestera, eta beti gorantziak emoten zetsezen Fernandezentzako.

Juan dira bein batian Fernandez berakin Barzelonara. Ikusi dira Pujolekin eta onek diñotsa sorbaldan ikutuaz:

- ¿Come se trova, Fernández?

Joño! Gauza arrigarria. Juan dira beste beiñ Gasteizera eta alkartu dira Ardantzarekin, eta onek, eskua luzatuz, irripartsu:

- Kaixo, Fernandez, zelan gabiz?

Benetan ezaguna zan gure Fernandez. Baiñan arrigarrixena gartatu jakuen bi lagun Parisera jua, eta an ikusi ebenian Fernandez Arco De Triunfo izeneko lekuan Mitterand berarekin "mano a mano". Ta orra nun urreratzen jakuen Txinako diplomatiko bat galdetzen:

- Zein da lenengo filan daon gizon ori?

- Zein? Fernandez?

Eta txinuak:

- Ez. Fernandez ezagutzen dogu. Bestia, Fernandezekin dauana.

Orduan konbenzitzu ei ziran bere lagunak Fernandez plaentxiarra oso ezaguna zala mundu guztian.

#### ALDATZ BERA VUELTA FRANTZIAN

\*\*\* "Vuelta Frantzia" korritzen zan egun aietan. Gilanian, maixan jarrita txirringuzale mordozka bat zegoan "AS" errebista aurrian zeukatela. Kolorietako orri asko agertzen ziran "vueltako" pasadisoak kontatzen. Erdi-erdikuan an ikusten zan ziklista pillu aundi bat. Pelotoian zoiazen. Danak arritxuta geratu ziran fotografi arekin. An zegoan Markox be tente adurra darixola txirringulari pillu ura ikusten. Batek esan zeban:

- Onek goruntz ala beerutz joiazak?
- Orrek? Beerutz, esan eban Markoxek.
- Zelan dakik ori?.
- Pedalari emon barik joiazak eta.

#### PLAENTXIAKO POPE TA TEJERUA

\*\*\* Tejerua ta Pope oso lagunak ziran, naiz bata liberala eta bestia karlistia izan. Juan dira bixak bein batian Ezozira letañietan. An ziarden abadiak kantuan:

- Ab omni malo, libera nos Domine. Propitius esto, libera nos Domine!

Tejeruak, ori entzunda, diñotsa Poperi:

- Zer jiñuek abadiak?

Eta Popek:

- Liberales, Domine!
- Zer liberales Domine?

Eta orduan asi zan Tejerua kantuan:

- Karlistas, Domine. Karlistas Domine!

#### KONFUSIÑO AUNDIXA

\*\*\* Plaentxiar bat sartu da tabernan bere alabatxuakin, eta aurrez-aurre ikusi dau futboleko kartel bat: Baracaldo eta Osasunaren "erresaltatuak". Itxura danez "corto de vista" zan eta au irakurri zeban: Bacalao, 3 - Aceituna 1. Aren poza lau pesetako a



merkealdia ikusi zebanian! Eskatu dau bakallau raziñua beretzat eta alabatxoarentzat azeitunak. Ordaintzerakuan, neskamiak diñotsa:

- Kontua, 17 peseta da.
- Zelan baiña, diño plaentxiarrak, kartelian eztau ori ipintzen.

Kartelian ipintzen zebana au zan:

Baracaldo, 3 - Osasuna, 1.

## AUTS ESPEZIALAK

\*\*\* Oso negartixa zan Plaentxiako umetxo jaiio berrixa. Beti, gau eta egun, negarrez. Bere gurasuak ez zekixen zer egin negar ura kentzeko. Lagun batek, zirixa sartzeko, esan zetsen Iruren, an ermita inguruan, ba zirala auts batzuk oso onak negarra kentzeko.

Ori jakin eta ara juan, dana bat izan zan. Umetxuakin sartu dira ermitan eta ain zuzen ertzeko aldara bat naiko autsez beteta ikusi eben. A zalakuan erremedixua, igurtzi zeben, igurtzi, umetxua goi ta be. Onetan sartu da ermita zaintzaillia:

- Zer darabizue auts orrekin?
- Auxe izango da, ezta, negarran kontrako erremedixua?.
- Bai, zera! Ori arratoiak iltzeko autsa da!

## PLAENTXIAR BAT SEULKO OLIMPIADETAN

\*\*\* Plaentxiar bat juan ei zan azken olimpiadetan Seulera. Bere berezitasuna mailluka jaurtitzen zeguan. Eta bai bota be urriñ bere txanda eldu jakonian. Danak arritxuta gelditxu ziran. Ain zuzen, urrezko medaillia irabazi zeban. Etorri da pozik benetan seleziño burua, eta zorion beruak emonaz, esatetsa:

- Zelan bota dok baiña aiñ urriñ maillukia?

Ta plaentxiatarrak erantzun:

- Biarreko erremintxak, zenbat eta urriñago bota, obe!

## IRU ANAI MUTIL-ZAR

\*\*\* Iru anai mutil-zar alkarrekin bizi ziran Plaentxian. Euretako bat oso gaizki jarri zan. Orduan beste bixak, sukaldian, asi ziran gertatzen entierro kontuak...

- "Primerisimakua" eiñ biarko jetsagu -ziñuan batak.
- Bai eta nork pagau biar jok! -esan zetsan bestiak-, "segunda" itxurazko bat be ez dok gitxi.
- Ara ba, -diño bestiak- eztagok diferentzia aundirik, eta orduan "tercera" bat naikua dok.

Itxura danez, gaixuak entzun zebazen anaien asmuak, eta me-me deitxu zetsen esateko:

- Zatozie ona! Badakizue zer pentsau doten? Ekarri eidazuez zapatak eta neu juango nok kanposantura.

## PROSTATA

\*\*\* Plaentxiatar batek esatetsa eibartarrari:

- I, Maolo, badakik zer dan prostata?
- Ez.
- Ba txisa egiñ ezin da kostata.

## PAGAU EIN BIOK

\*\*\* Eibartar oso fiñ bat jokuan ari zan begi eta belarri. Onetan, agertu zan Roke Trebiño. Eta ikusi zebanian gure jokularixa jertsia elegante eta barrixakin, esatetsa:

- I, ori dok jertsixa daukana!
- Andik apur batera, berdiñ. Eta irugarrenez:
- Ori dok jertsixa!
- Jokularixak, asarratuta:
- Ixildu ari! Au pagau ein biok... pagau ein biok!
- Orduan Rokek:
- Zer? Pagau barik daukak ala?

## TXARTEL ORDEZ FOTOGRAFIXIA

\*\*\* Garizuman, txartel denporan, Plaentxiako abade "kontroladore" batek esatetsa Urlixari:

- I, Urlixa, aurten eztoz eiñ Pazkuakorik.

- Bai, jauna, eiñ dot.

- Ez dok ba agertzen ire txartelik.

Urrengo urtian, Urlixak, konfusiñorik ez egoteko, txartela bota biarrian bere fotografixia bota zeban.

## PLAENTXIAKO BANDIA

\*\*\* Plaentxiako San Iñazio bandia -karlisten bandia- oso famatua zan. Itxurasko musikuak ziran. Ardua bitarteko egon ez balitz...

Beiñ baten ba ziarduen pieza bat jotzen. Batzuk amaitu eben. Bestiak, baña, ondiok jarraitu eitxen zebe jotzen.

Zelan jarraitu dozue?, esan zetsen.

- Ene! Guri ondiok iru konpas falta jakuazen...

Papelak aldrebes ipiñita...

\*\*\* Au jakiñik, konprenditzen da, Eibarrera Sanjuanetan etorri biar ziranian, Eibarko direktoriak esan zetsena:

- Ze erreperitorixo? Jo egizue nai dozuena. Gauza bat bakarrik eskatzen deu-tsuet: joa-jo, beintzat batera akabau daizuela.

\*\*\* Beste beiñ, Errepublikak denboran, jua ziren Debara ta kalia ziar zoiazela, asi ziran diarka:

- Gora Don Carlos! Gora erregia!

Urreratu jakue aguazilla ta dinotse: Ixilik gero! Emen ezin leike diadar subersiborik esan!

- Ezin leikiala "gora erregia" esan? Ah, orduan: gora erregiñaren gizona!

\*\*\* Jua ziran baitxa be musiko auk Aretxabaletara bi egunerako. Antxe, lo egiteko,

izendatu zetsezen etxiak.

Bi musiko, baiña, naiko "lafiauta", dudan zegozen zer etxetara juan biar zeбен. Gitxi gora-bera, pegora batera eldu ziranian, pentsau zeбен a ete zan eurak juan biar ziran etxia. Zabaldue zeбен txingetakin atia, ta aren poza ikusi ebenian kolgadorian zintzilik txapel gorrixa! "Emen dauaz guriak!", esan zeбен ta sartu ziran aurreko gelan. Baiñan an ez zeuan musikorik. Mikeletia ta bere andria lotan...

\*\*\* Musiko auetako bat oso gaixorik jarri zan. Deitu zetsen abadiari eta bai onek esan be, mantso-mantso, Elizakoak artzeko. Gaixoen igurtzia etorri zanian, unziñua artzen zegoala esan ei zeбан gure plaentxiarrak:

- Emen bielak engrasatzen jiarduek eta anak igurtzitzen. Biaje luzia daok, itxura danez.

#### PLAENTXIARA ANKAK GARBITZERA

\*\*\* Gila-neko tabernan esaten ari ziran Eibar-ren amalau pisoko etxia eitxen ziarduela. Danak txundituta geratu ziran notizia onekin. Ango batek baiña, au esan zeбан:

- Zertarako amalau pisoko etxia? Eta ura nun jakek? Plaentxiara etorri biako juek anak garbitzera!

#### BABAK EZIN BIGUNDU

\*\*\* Plaentxiatar bat, forjako biargiña gaiñera, baziarduan Gila-nian bazkarixa jan naixan. Jan baiño geixago, burua mobitxu, ixilleko berbak esan eta arpegi asarratua ipintzen zeбан.

Etxekoandriak esaten detsa:

- Zer, ez jatsu jana gustatzen ala?

- Zelan gustauko jatan ba! Guk, forjan, burdiñiakin saldia eitxen jonau, eta emen, zuen taberna onetan, babak ezin bigundu aal izateko, zer arraixo eitxen dozue?

#### DANAK KABITZEN DIRA?

\*\*\* Ama bat gaixorik zeguan oian. Estutu zan gaiñera, 40ko kalenturia zeukala konturau zanian. Prisaka bialdu zeбан bere alabatxua Artadi medikuagana. Alako gizon

aundixari erderaz berbe eñ biar jakuelakuan, medikuaren aurrera eldu zanian, umetxuak, estu ta larri:

- Señor médico, ila madre está con 40 en la cama!

Artadik:

- !Con 40 en la camai, ta danak kabitzen dira?

iASI SEA!

\*\*\* Primo Riveran Dictadura denporan pasau ei zan Plaentxian. Ango tabernari batek bazeukan lorito bat tabernan. Itxura danez, oso demokrazia giroan azia. Lorito aren leloa au izaten ei zan.

- iAbajo la dictadura! iAbajo la dictadurai

Enterau dira guardia-zibillak ta bai amenazau be ugazaba. Kontuz ibiltzeko gero!

Bai plaentxiar tabernariak berbia emon be lorituak ez zebala geixago alakorik esango bere tabernan.

Ta ara zer egin zeban: monjen komentuko lorituakin trukau tabernakoa.

Andik egun batzuetara, juan dira guardia-zibillak "inspesiñua" egitera. Ta loritua axaxatu naixan, esaten detse:

- Lorito, iabajo la dictadura!

Lorito barrixak -monjetatik ekarritxakuak- erantzun ei zeban:

- Así sea, por los siglos de los siglos.

PELOTA PARTIDUAK ZERUAN

\*\*\* Bi plaentxiatar lagun aiek oso pelotazaliak ziran. Baiñan il zan bat, eta orduan bestian arduria zan ia zeruan pelotalekurik izango ete zan. Zalantza onetan, egun baten agertu ei jakon bere lagunaren espiritua. Eta ondiok Plaentxian bizi zanak beriala galdetzen detsa:

- I, ta zeru eder orretan badaok pelota-lekurik?

- Bai orixe! Pelota-leku zoragarriak dauaz eta partidu ederrak be organizatzen jitxuaguz. An gaitza dok tantua egitia. Aiñ biurtu gaitxuk ajillaki, aiñ gauaz daniani ezeze..., orregaitxik, gure partiduetan tantua eitxia dok gauza zailla.

- Ene! Ori dok poza emoten destana.

Orduan zeruko lagunak:

- I, aaztu baiño leen beste gauza bat be esan biar deuat: datorren domekan ik be partidua daukak an.

### ZORRA ORDAINTZEKO

\*\*\* Plaentxiatar batek zor zetsan eibartar bati. Ikusi dira. Eta artzekodunak, diñotsa:

- I, baiña, noiz pagau biar destak?

- Ara ba, -diño bestiak papel bat boltsikotik atarata-, emen listia...onetxek danok jaukadaz...laugarren ago.

- Zer lista ta zer laugarren! Eztaok deretxorik!

Orduan plaentxiatarrak:

- I, txulo jartzen baiz, azkenera pasauko aut.

### SAN ROKE PUXIGIAKIN

\*\*\* Plaentxian, Sanrrokietan, santuaren irudiakin prozesiñua eitxen dabe Esoziraiño. Esan biarra dago San Rokeren imagiñak eskuan daroiala palo luze bat, puntan puxiga antzeko batekin.

Bazetozen Ezositik bueltan kaleruntz eta tope egin dabe, Plaentxiako kalietan "gigante eta kabezuduekin". Prozesiñoko batek diño:

- Eztaok deretxorik! "Gigante ta kabezuduekin" tope eiñ biar...

Beste batek erantzun zetsan:

- I, berau be zelan joiak? puxigia eskuan daroiala.

### TANTUM ERGO KANTATZEN

\*\*\* Plaentxiako gaixo bat Artadi medikuakin tratamentuan zebillen. Baiña, bi-txartian, kurandero baten esanak be jarraitzen zebazen.

Orrela gauzak, egun baten eta ustegabian, sartu da Artadi jauna gaixuan etxian ta an nun ikusten daben gure gaixua, kuarto guztia keiakin beteta, intzientzuaren lurrunak artzen. A ikusitxa, zer egin zeban medikuak? Belaunikatzen zan itxura egin eta "Tantum ergo" kantua kantatzen etxetik urten!

### BETI KONTRAKUA!

\*\*\* Ba ei zan Plaentxian andra bat, -bere gizonak esaten zebanez- beti kontrakua egin biar izaten zebana. Gizona bera be etzan santu-santua. Beti berandu etortzen zan etxera. Asarre askotxo zeguan andra-gizon aren artian. Andriak beiñ baiño geixagotan esaten zetsan bere burua botako ebala errekarra gauzak orrela jarraitzen bazeben. Baiñan, alperrik! Gauzak etziran obetotutzen. Eta egun baten, esan eta egiñ, andriak ainbeste bidar esan zetsana egiñ-eiñ zeban: diskusiño bizi baten, salto errekarra.

- Ene, gure andriak eiñ jok eitxekua! esanaz, jatsi zan ataira eta erreka ertzetik bazoian Osintxurutz.

Orretan, tope egin dau ezagun batekin eta esplikatu detsa andriak egin daben "disparatia".

Eta lagunak:

- I, baiña, gaizki oia. Ire andria korrientiak Maltzarutz eruango jok...

- Ai txotxo! ik ez zeban nere andria ezagutzen! Arek beti kontrakua eitxen juan, eta oiñ be, seguru nagok, kontrakua eitxiarren, Maltzarutz juan biarrian Osintxurutz joango dala!

MEDIKU JAUNA, NI BANOIA!

\*\*\* Beiñ batian deitxu zetsen prisga guztiakin Artadi medikuari etxe batera juateko. Beriala baten eldu da medikua gaixuagana eta au asi zan negarrez eta larri esaten:

- Artadi jauna, ni gaizki nago, ni banoia!

Eta medikuak:

- Ez ari estutu. Baoian bitxartian, ondo ago. Txarra dok, eruaten gaitxuenian.



BIURRIKERIXAK

## KOMUNERA KORBATIAKIN...

\*\*\* Goizeko iruretan eldu da Urlixa etxera. Berandu zanez, ixil-ixilik erazten asi da, oian sartzeko andria konturatu barik. Onetan, baiñan, esnatzen da andria:

- Gizon, onek dira etxera etortzeko orduak!
- Ixildu zaitxez, andra. Ni ordu bixan be etxian nago. Komunera jaiki naiz.
- Barkatizu, gizon, baiñan enekixan komunera juateko korbatia jazten zendunik.

## BOST DURO ZOR

\*\*\* Urlixa juan zan afari-merienda eitzeko asmoz taberna batera. Epetan ibiltzia gus-tatzen jakona zan. Eskatu zeban kallo raziño aundia ta arda botella ona. Bai ekarri be neskamiak. Ori dana ta gaztai zati aundi bat jan zebanian, 19 peseta pagatzia tokatzen jakon. Deitu zetsan neskame barri ari:

- Zu, ekatzuz 6 peseta.

Bai ekarri be neskamiak. Orduan emotetza peseta bat neskamiari esanaz:

- Eutsi zuretzat peseta bat propiña. Eta bestia apuntau kuadernuan: 25 peseta zorretan.

## TRAJIA ENKARGATZEN

\*\*\* Markiegigana juan dira bi gazte trajia enkargatzera. Bata txikixa zan; bestia aundixa. 3.000 pta balio zeban orduan trajiak. Txikixak diño:

- Zu, baiña, nik orren tela erdixa biot. Neri merkiago eiñ biestazu.

- Trajia, trajia dok, -diño Markiegik-. Bueno! Txaleko barik nai bok 2.500.

- Eiñ ba txaleko barik.

Urten dabe biak dendatik eta luziak esatetsa:

- I, baiña, pagatzeko asmorik ez, eta zertan ibilli diskusiñuan?

- Berak gitxiago galdu deixan.

## KUADERNUA AMAITXU

\*\*\* Ba zan bat Eibarren gaitxizen onekin deitzen zetsena: "Bababaltzan kokua". A-ntxinan ondo bizitxakua izan ba zan be, gero naiko itxusi ikusten zan. Eta esaten zebenez "epetako" asko zeukazen tabernetan. "Asalgia"nekuan be, itxura danez, asko edan eta gutxi ordaintzen zeban. Baiñan, ori bai, kuadernuan apuntau geratzen ziran zor guztiak.

Egun baten, "Asalgia"neko etxeoandriak esan zetsan:

- Aizu, baiña, ia amaitzen doia -hainbeste apuntekin- kuadernua...

"Bababaltzan Kokuak" erantzun zetsan:

- Ez eztutu, etxeoandre, ekarrikotzut beste bat.

## LAGUNAN ARDAU TXIKITUAK

\*\*\* Oso lagunak ziran bixak. Beti alkarrekin. Baiñan bixetako bat urriñera eta denbora askorako juan biar izan zan. Eta juaterakuan auxe kontseju au emon ze-tsan:

- Ara, aztu ez gaitxezen bata bestiakin, ik tabernara oianian, eskatu beti bi txikito, bata iretzat eta bestia nere izenian. Eta kafia artzerakuan bardiñ.

Baita be kopia artzerakuan. Ik beti bi eskatu. Nik bardiñ eingo juat.

Tabernarixari emon zetsan explikaziñua:

- Ara, bata neria dok, eta bestia lagunak izenian.

Eta olaxen urte mordoxka baten... Egun baten, baiña, sartu da tabernara:

- Ekarrrik txikito bat bakararra.

Tabernarixak orduan:

- Zer? Lagunak il dok ala?

- Bai zera! Medikiak edari guztiak prohibitxu jestaz. Orregaitxik, oiñ lagunana bakarrik eraten juat.

## ZEIN DA?

\*\*\* Eibartar bat, lagun artian, patxadan, afari ederra egin ondoren, goizeko irurak aldian, badoia etxera. Atera eltzerakuan, konturatzen da: giltza falta!

- Ene -diño- ointxe naok ondo: nere andria Marina de guerra dok gero!

An gelditu zan bildurrez, aterik jo nai ezta. Aspertu da, baiña, zaiñ egoten eta alako baten, ausartzen da timbria jotzera,

Andriak, barrutik:

- Zein da?

Eta gizonak:

- Zein dan? Goizeko lauretan gizona falta ta zein dan galdetzen dozu?

Oindiok, berak artzekuak...

## IXILIK ESKATU

\*\*\* Sartu dira bi gizon tabernara. Bata jarri zan mostradoreko alde baten. Bestia,

beste puntan. Alako baten, ertz batekoak esatetsa diarrez beste puntan zeguanari:

- I, noiz pagau biestak zorra?

Juan jako zorduna "akreedoriangana" eta esatetsa:

- I, nik eskatu neuanian, ixil-ixilik eskatu neuan gero e...

## "EIBARKO GRANUJAK"

\*\*\* Gure gerra aurrian "granuja" batzuk egin dabe "fetxorixa" bat eta eruan dabez kontsejupeko inspeziñora. Euretarik argixenak esatetse bestiei:

- Mutillak, zuek ixilik egon. Etxuau emon biar "pistarik". Bestela, etxian garbitxuko gaitxuek. Neuk bakarrik eingo juat berba. Zuek trankil.

Onetan agertu da aguazilla:

- A ver, zuek zeintzuk zarie? Esan izenak?

- Ara -diño mutil argixak- ointxe esango dogu egi guztia. Onek bixok anaixak dira: Kikili eta Mokolo. Au Xagu-zaarran anaixa da. Beste au atemorrolluan kaka eifñ zebana, eta bostok.

Auxe izan zan gaztetxo aien fitxa. iAverigüelo Vargas!

## ERRORE BI EZ!

\*\*\* Plaentxiatar bati, kinzenia kobratzerakuan, 2.000 peseta geixago emon ze-tsezen. Konturatu zan bera, baiña ixilik! Ugezaba be konturatu zanian pentsau zeban urrengo kinzenan 2.000 peseta gitxiago emotia. Ta olan egin zeban. Gure plaentxiarrari, baiña, denporia faltau jakon erreklamatzera juateko. Ugezabak esan zetsan:

- I, baiña, aurreko kinzenan errore bat euki genduan...

Orduan plaentxiatarak:

- Bueno, errore bat pasau leike, baiñan bi ezitxut kontsentitzen!

## KUKARATXEN AURKAKO AUTSAK

\*\*\* "Morenito" k kukaratzak iltzeko autsak saltzen zebazen. Bai andra askok erosi be. Kukaratzak, baiñan, ez ziran iltzen. Juan ziran protestatzera saltzailliangana, eta onek esan zetsen:

- Ah! zuek ezteztazue ondo aitxu. Eiñ biar dozuena da, lenengo autsa bota kukaratzan gaiñera, eta gero kukaratzak zapaldu.

## SUMA Y SIGUE

\*\*\* Eibarko "tunante" batek multa asko zekazen ordaintzeko. Aspertuta Ayuntamiento-koak, deitu zetsen egun baten eta, jueza aurrian zala, ordaintzeko zekazen multen lista aundi bat irakurri zetsan. Berak, serio-serio dana entzuten zeban. Azkenian, diñotsa alkate jaunak:

- Badaukazu zeozer esateko?

- Bai, jarri eizu lista orren azpitan: SUMA Y SIGUE.

## SOLDAUTZAN DIRU BARIK

\*\*\* "Petit Patxoa", eibartar xelebria, soldau zeguan Galizian. Bere kartetan beti diru eske zeguan etxekuei. Aitxak, aspertuta, idatzi zetsan:

- Geixago ezeik eskribidu etxera diru-eske!

Ia sei illebetian ez zeban idatzi semiak. Beiñ baiña, sobre aundi baten, bialdu zeban fotografixa bat. Ara zelan agertzen zan: etzinda, zapaten zuelak zulatuta erakusten, fraka eta txaketako boltsikuak bueltauta. Eta fotografixa azpitan au jartzen zeban: "Este es vuestro hijo Ramòn".

## BIARRERA JUAN NAI EZ

\*\*\* Plaentxia inguruan bizi zan Urlixa. Itxura danez, biarrerako gogo gitxikua. Edozer aitzeki artu eta etxian geratzen zan edo lagun artian jokuan. Beiñ etxekuak esan zetsen:

- I, txotxo, biarrera noiz juan biar dok?

Eta Urlixak:

- Baiñan zuek eztakizue ni denpora gitxixan bizitzeko jaixo naizela eta betirako iltzeko, eta biarrera bialtzia nai nozue?

Beste beiñ, orrela "oporretan" zegoala, bere tallarreko kontramaixuakin ikusi da, eta onek:

- I, baiña, noiz ator biarrera?

Eta Urlixak:

- Ara, zuek eĩñ biar dozuena dok tallar barruan daozenak jubilau, eta kanpuan gagozenei bakian itxi.

Andik apur batera, ikusi da kalia ugezabakin.

- Noiz ator biarrera?

Urlixak:

- Etxuek esaten ba gure tallarrak ainbeste milloi balio ditzuala? Eĩñ zeinkien gauzarik onena auxe dok: orrek milloiok tallarreko danen artian partidu, eta danok ondo biziko gaitxuk.

Azken batean, gure Urlixari "gaixo luzearen" oporrak emon zetsezen. Etzegoan beste erremedixorik.

ESTRAPERLO DENPORAN



## LETRARIK EZ!

\*\*\* Il zan plaentxiar ugezaba bat. Etorri dira funerarixakoak. Aukeratu zebeñ kajia eta esaten detsa empleatuak alargunari:

- Letrarik ipiñiko detsau kajan?

- Ene, orixe ezi -diño alargunak-. Orretzek il dabei. Letrarik pagau ezin eta infarto bat etorri jakon eta ilda geratu zani. Ez ipiñi letrarik, orretzek il dabe-taii.

## ESKOLAKO TONTUA, ESTRAPERLISTA LISTUA

\*\*\* Eskolan alkarrekin ibillitxakuak ziran. Bata argi-argixa, bestia tonto-tontua. Estraperlo denporan, barriz ikusi biar izan ziran. Argi-argixa fabrika bateko burua zan. Bestia, estraperloko materixalak saltzen Bilbon bizi zan. Juan da gure gizon argixa Bilboko Patxo kafeterixara, Arenalian. An eitxen ziran orduan materixalen saldu-erosketak. Etorri da gure tontua "Mercedes" zoragarri baten kafeterixara eta esatetsa eskolako lagunari:

- Materixal ori biok? Zenbat tonelada nai ditzuk? Ori nere kontu. Laister izangok Eibarren.

Inbitau zeban, gaiñera, bazkaltzera. Eta bazkaltzen ziarduela, esaten detsa tontuak:

- Bai, nik diru asko eñ juat estraperluan.

- Bai ba, lapurretan egiten dozue-ta...

- ¡Qué va! Nik eitxen dotena biarra dok, eta asko gaiñera. Nik 3 por 100 bakarrik kargatzen juat.

- 3 por 100ekin egiten dok ainbeste diru...

- Ba, kalkulaik, nik ogei duruan erosten dotan materixala, 300 pesetan saltzen juati.

## ESTRAPERLISTEN TXAKETIA

\*\*\* Plaentxiako "Labegaiñ" soziedadian gertau zan. An zeguan plaentxiatar estraperlista amorratu bat. Onetan, sartu da Eibarko Txomin txaketa panazkuakin. Jantzi arekin ikusitxa, esatetsa plaentxiatarrak:

- Dotore ator estraperlista txaketa orrekin.

Eta eibartarrak:

- Estraperlisten jantzixa dok au? A bai! Orduan ik kantzontzilluak be panazkuak eukiko ditzuk!

## ESTANKORA ARDAU BILLA

\*\*\* Estraperlo denporan Eibarren pasatakua da. Orduan,- askotan beintzat- etzan tabakorik billatzen estankuetan eta bai ugari tabernetan. Bardiñ burdiña erosterakuan, Arikixanera juan biarrian, asko, Bilbora juaten ziran, Patxoneko kafeterixara, burdiña billa.

Orrela gauzak, jua zan beñ eibartar "bromista" bat Gazteluneko estankora eta esatetsa ugezabari:

- Gaztelu, ekatzu arda txikito bat.

Arek naiko asarre:

- Emen eztaok ardaurik!

Ta bestiak:

- Ene, taberna guztietan dao tabakua eta, emen, zergaitxik ezta-ba egongo ardaurik?

## KRISIS URTIETAKO GAUZAK

## AU DOK TXATXARIA!

\*\*\* Plaentxiar batek esaten zeban:

- Au dok txatxaria! Biarrian asi beziñ laister, huelgara juañ giñuazen. Huelga amaitzerakuañ, gaixorik jausi eta, "bajia" artu biar izan najuañ. "Altia" emon josteniañ, bakaziño denbora etorri zuañ. Ondoren, "errekonbersiñua" dala-ta, biar barik gelditu nitzuañ. Azken batiañ, biarra zer zan probatzen neguala, jubilaziño aurreratua emon josten eta...gaur arte! Au dok txatxaria!

## KRISIS DENPORAN, UME BATEN MODUAN LO EGIÑ

\*\*\* Alkartu ziran bi ugezaba eibartar ta, krisisa gora, krisisa bera, bazebizen berbetan. Gauzak estu, itxura danez. Biarra egin gura eta biarrrik ez. Eitxen dan biarra, barriz, kobrau eziñ. Eta gaiñera, jakin barik illunaldi au noiz amaitxuko dan.

Batek diño:

- Nik 20 biargiñ jaukadaz eta zelan biar kontu au arreglau, pentsau ta pentsau, gabetan begirik be etxuak itxitzen.

Bestiak:

- Ara ba, nik 40 biargiñ jaukadaz eta etorkizunari begira aiñ illun gauzak ikusten jitxuadaz-eze, begixak pegauta moduan jaukadaz lorik ezin-einda.

Onetan zegozela, etorri jakue plentxiatar ugezaba bat. Onek 200 biargiñ zeukazen. Galdetu zutsen beste bixak:

- Ik be eztok ba lo asko eingo gaurko giro beltz onekin!

Ta onek erantzun zetsen:

- Ara ba, nik ume baten moduan, lo eitxen juat.

- Ume baten moduan? Zelan leikek?

- Erraza, mutilak. Alako ardura aundixakin oera juaten nok, eze, ordubetetik ordu-betera, esnatu eitxen nok. Esnatu, negar egiñ eta barriz luak artu. Eta olaxe ordu guztietan.

## IÑORK NAI EZTABENA BE FALTA

\*\*\* Alkartu da eibartar bat plaentxiar batekin. Zeozer esan biar eta esatetsa "ciudad ejemplar-rekuak":

- Zelan zabizie Plaentxian? Ze bizimodu daukazue?

- Bizimodua? Gaizki, mutil! Ara zertara eldu garan: iñork sekulan nai izan ez-tabena be - biarra-, axe be etxakau oiñ!

ADARRA JOTZEN

## ONDO JATEN DANIAN...

\*\*\* Plaentxiar batzuk etorri dira konbidau Eibarrera. Maixan jarri ordurako asi dira eibartarrei adarra jotzen.

- Eztagok emen ondo jango dan itxurarik, palilluak be zapalak ipiñi dozuez. Guk biribilak jaukaguz.

- Gaiñera bikarbonatorik be eztozue ipiñi, ta barriz, ondo jaten danian, bikarbonatua derrigorrezkua dok aixiak botatzeko.

Orduan eibartarrak:

- Ondo jaten danian eztok egoten aixientzako lekurik.



## EIBARKO ORKESTIA

\*\*\* Izugarrizko zaratia armau zan Eibarko kalietan. Ez aurrera, ez atzera egiñ ezinda, an zegoazen automobill pilla bat Untzaga inguruan. Aspertuta txoferrak ainbeste denporan geldi egoten, asi ziran klaxonak joten. An armau zan turutiak etzeukan akaberarik. Orretan, urten dau Isasiko denda batetik emakume batek eta diño eskuak belarrira eruanaz:

- Zer da au!

- Ori zer dan? -diñotsa txofer batek- ori Eibarko orkestia da.

## TUNELEKO ZULOA OSTU

\*\*\* Eibarko taberna bateko etxeoandria benetan kontu-batzaillia zan. Aren jakin-naixa! Kliente guztien berbaldixetan nastatzen zan. Sorgiña zan benetan. Orduan, Benito Azkarate eta kuadrilliak pentsau zebein beinbetirako pelma ura aldentzia. Eta ara zer pentsau zebein. Ba zetorren andria eta asi da Benito laguneri esaten:

- Ori gero, ori, eiñ, eiñ biar dok. Sekula alakorik!

Eta andriak:

- Zer pasau da Benitxo?

- Badakizu nun dagan Zaldibarko trenbideko tunela?

- Bai. Eta zer pasau da?

- Ara ba: ostu eiñ detsela zuloa.

## ERMUKO EZTABAIDAK

\*\*\* "Txindurritarrak" bizkaitarista aundixak ziran. Beren goixan, baiña, oso karlista zan famili bat bizi zan. Dana dala, oso ondo eruatzen ziran eta umore aundixakin gaiñera, alkar zirikatuz. Beiñ baten, deitu zetsen goikuak:

- I, Txindurri, ointxe goiazak zuen banderia jatera: porru patatak txorizuakin.

Txindurrik:

- Bai, gu be ointxe goianaz karlisten banderia jatera: arrautza prijiduak piparrekin.

## FUSIBLERIK EZ

\*\*\* Epoka aretan, Plaentxian pertsona zar mordoxka bat il zan. Ori dalata, kuadrilla baten diskusiñua sortu zan, ia zergaitxik ete zan. Artadi medikuangana jo zebeñ explikaziño billa. Onek erantzun:

- Ara ba: pertsona nagusixak etxakek fusiblerik, eta orregaitxik, leenengo kontaktuan, iltzeko arrixkuan dauaz.

## INOXIDABLIA

\*\*\* Madrillen bizi zan plaentxiar bat etorri zan beñ batian Eibarko fabrika batera eta bai "pedido" on bat egin be. Oso lagun egin zan gure eibartarrakin. Andik bost bat urtera etorri da barriz, eta bai arritxu be eibartarraren gaztetasuna ikusitxai. Esatetsa:

- I, baiña , ointxe bost urte moduan ago. Zelan arreglatzen aiz olan konserba-tzeko?

Eibartarrak:

- Itxura danez, ez bakarrik nere produktuak, neu be inoxidablea nok.

## EXPEDISIÑUAK ETA ENTIERRUAK

\*\*\* Don Antonio Azpiri abadia eleiza aurrian zeguan. Onetan, Bistalegre kaletik bera, Alfako biargiñak bazaroizen kajak -entieruetakuen itxurakuak- bizkarrian, estaziñoruntz. Don Antonio,-uleartzailia iñor ba zan-, urreratu jakuen eta:

- Ze mutillak, entierruak ala?

Alfatarrak:

- Entierruak ez, expedisiñuak!

Andik egun batzuetara, Eibarren egun berian iru entierro izatea gertatu zan. Urreratu ziran gure alfatarrak Don Antoniogana eta esan detse:

- Zer, Don Antonio, expedisiñuak?

- Ez, entierruak!

## SUPOSITORIXUA

\*\*\* Plaentxia inguruetan gertau zan ziur asko. Gizon zartxo bati agindu detsa medikuak supositorixua artzeko. Arek, baiña, etzekian zer zanik be.

- Ori, zer da? Aspirinia moduan artzkua?

- Ez, -diñotsa errainak- ori atzetik sartzen da. Baiñan zu ez estutu. Neuk ipiñiko deusut. Ipiñi zeban aitxitxa ertzera begira ta, bai sartu be supositorixuai.

Erraiña kuartotik urtetzera zoiala, esaten detsa gizon zartxo arek:

- Maitxu, bixar goizian etorri ataratzera.

### EPE-EPE

\*\*\* Ba zoian eibartar bat, illunabarrian eta bizikletan, ez argi, ez freno, ez tinbre barik, eta alako baten arrapau dau plaentxiar bat. Onek, naiko minduta, diñotsa bizikletan zoianari:

- I, baiña, nun daukak argixa?

- Etxaukat.

- Eta frenua?

- Etxaukat.

- Tinbrerik be ez?

- Ezta orixe be!

- Bueno, baiña, eziñ zeban esan "epe-epe"?

### LAISTER ILLGO DIRALAKUAN...

\*\*\* Taberna mai baten inguruan, an zgozen eibartar kuadrilla batekuak berba eta berba. Oraindik biarrian zebizenak ziran batzuk. Bestiak, barriz, biarrik egin barik, gaixo luzetik kobratzen zebenak.

Orretan sortu zan diskusiñua, ia, illian azkenian, gaixo luzekuak zelan kobratu leikien biarra egiten dabenak baino geixago.

Auetako batek, gaixo luzekoei begiratzuz, umoretsu, explikasiño au emon zeban:

- Itxura danez, or goikuak denpora gitxirako izango dala pentsatzen juek, zuek laister illgo zariela-ta. Orregaitxik emoten detsue geixago.

## PLEURESIA JAUKEK ALA?

\*\*\* Eibarko fabrika baten, ufal aundixak izan ziranian, urak sartu eta makiña batzuek ondatu ziran.

Onetan etorri da plaentxiar bat fabrikara.

- Zer darabizue?.
- Ementxe, mutil, urak ataratzen makiñei.

Plaentxiatarrak orduan:

- Zer ba? Pleuresia jaukek ala?

## AREK BETERINARIXUA BIAR ZEBAN

\*\*\* Mediku jaunari deitu detse etxe batetik eta semiak diñotsa:

- Aitxa ta ama, bixak daoaz gaixorik. Etorri zaitxe, mesedez.

Itxura danez, aitxagana juatia alperrik zan, arek ez baitzeban medikuaren esanik eitzen iñoiz be.

- Banajoiak -diño medikuak- baiñan ez aitagatik, amagatik baiño.

Amari kontu egin eta errezeta emon ondoren, bazoian medikua etxetik urtezera, eta orduan semiak:

- Mediku jauna, aita beste kuartuan dao...
- Orregana ez najoiak. Ekarri orri beterinarixua!

## ORREK SOBRIA JAKAN

\*\*\* Plaentxiako a umetxua oso buru aundixa zan. Egun baten, mariñel sonbrero-txo bat erosteko gogua etorri jakon gure mutiko buruaundixari. Juan ziran dendara sonbrerotxua erosi naixan ta... an ziran kontuak aukerako bat billau ezindai. Orduan amak dendarixari:

- Badakin ba, onek faltia jakan da...

Dendarixak:

- Ez, faltia ez, orrek, sobria jakan.

KAZARIXENAK

## EIBARKO KAZARIXA

\*\*\* Bazan Eibarren kazari bat bere andriari i eitxen zetzana eta txakurrari zu. Andriak, naigabez beteta, esan zetsan egun baten:

- Eztago deretxorik, zuk, txakurra ni baiño geixago maitxe dozu.

Eta gizonak:

- Geixago ez; iguali.

## ARROZAKIN KARGAUTAKO KARTUTXUAK?

\*\*\* An ziarduen kazan Petit Patxoia eta beste bi lagun, danak alkarrekin. Usuen pasia ikusi zebeñian, asi ziran tiroka irurak. Eta bai jausi be usuak lurrera... Lenengo usua jausterakoan, diño batek:

- Neria!

Jausi da bigarrena, eta bestiak diar eitxen dau:

- Neria!

Bardin irugarren batekin. Orduan Petit Patxoiak:

- Baiña, mutillak, zuek zer uste dozue, nere kartutxoak arrozakin kargauta daoze ala?

## LENGO PATROIA IL

\*\*\* Itxura danez, San Hubertoren aurretik, San Eustakio izan zan eiztari edo kazarixen patroia. Felix Txatua, Plaentxian, oso kazari aundixa zan. Egun baten esatese:

- Zu, Felix, badakizu zein dan kazarixen patroia?

- Jakingo etxuat pa...! San Eustakio!

- Bai zera, oiñ San Huberto da.

- Ah! orduan lengua il eiñ dok.

## SEKULA ALAKORIK!

\*\*\* Eibartarrak gaitz-izenak ipintzeko orduan ez dira makalak izan! Gaitz-izen ugari izan dira gure erri onetan. Ara beiñ zer pasau zan. An zeuden tabernan lagun talde bat. Bat "Xaua" zan. "Arratoi txakurrakin " zeguan. Eta eurekin, "Belia" ta "Karabiñia". Onetan sartu da Fernando Beltxi eta diño:

- Ene, etxuat sekulan alakorik ikusi!

- Zer pasatzen dok ba? -diñotsa "Karabiñiak".

- Zer pasatzen dan? "Xaua" "Arratoi txakurrakin" eta "Belia" "Karabiñiak"!

## TXAKUR GOSETIXA

\*\*\* Eibartar kazari bat bazoian Osintxun ziar bere txakurrakin. Onek, baiña,

gosearen-gosez, saietzak be bistan zeukazen. Onetan plaentxiar batek diñotsa:

- Ene, orrek txakurrorrek jakak gosia!

Eibartarrak disimulatu naixan, bota detsa txakurrari ogi zati bat. Txakurrak, baiña, kasorik be ez ogixari.

- Ikusten dok, plaentxi, zelan eztakan goserik?

Eta plaentxiarrak:

- Zelan jango jok ba...orrek etxok ezagutzen ogixa zer dan be!

## USO ASKO PASAU

\*\*\* Eiztari edo kazari purrukatua zan eibartar ura. Egun sentian juan zan usotara, baiñan, itxura danez, ez zeban suerte aundirik izan. Etxera, beintzat, uso bakar batekin zetorrela, lagun batzuk esan zetsen:

- Zer, uso asko pasau ditzuk?

Ta kazarixak, gerritxik zintzilika zekarren usua erakutsixaz, dinotse:

- Au ez, beste guztiak.



DANETIK ZEOZER

## AEROPLANUA NAIZ ALA!

\*\*\* Oktubreko reboluziñuan detenidu zeben eibartar bat. Tartamutua zan, gaiñera. Eruan dabe guardia zibilletara. Asi dira zeozer atara naixan. Eta batak alde batetik:

- iVd. estuvó en el Ayuntamiento!

Bestiak:

- iVd. estuvó en la Escuela de Armería!

Beste batek:

- i A Vd. le vieron en Malzaga!

Orduan gure tartamutu deteniduak:

- Zer, zer nai-zela pen-tsa-tzen dozue? Aeroplanua ala?

## METEDOR DE TREMENDOS

\*\*\* Eibartar bat jua zan Burgosera soldautza eitxera. Lenengo egunian, asi da kabo kozkor bat izenak artzen, eta nunguak eta zer ofizio dauken galdetzen.

Gure eibartarra armagintzan jardutzen zan. Pistoliaren armazoa funditzerakuan, zulo txo batzuk geratzen jakozen, eta orduan "remache" batzukin tapatzen ziran zulo txo aiek. Ori eitxen zebanari "garau sartzaillia" deitzen jakon.

Ori zan, ain zuzen, gure mutillaren ofiziua. Orregaitxik, galdetu zetsenian zer biarmodu zeukan, berak "garaua" itzuli edo traduzidu zeban "tremendo" lez, ta au izan zan bere erantzuna:

- Mi ofisio? Metedor de tremendos.

## ETZAN EIBARTARRA

\*\*\* Ipuruako futbol-zelaixan pasau zan. Ba ziarduen bi ekipoak jo ta su, eta ona emen, zikintasunez, futbolista bat lurrian ziar bota zebela. Arbitrua, barriz, ezer ikusi ez baleu lez. Sekulakua armau zan! Jentia orru ta txistuka eta arbitruaren gurasoekin akordatzen. Onetan, bateronbatek bota zeban futbol zelaira zerbeza botilla bat.

Beriala esan zeban plaentxiar batek:

- Ori bota dabena eztok eibartarra!

- Zelan dakik ori?

- Ara ba, eibartarra izan bazuan, txanpan botillia jaurtiko jua.

## LURRA GASTAU

\*\*\* Gerra denporan, bi eibartar, Eibar, Bilbo eta Santander galdu ondoren, ba zoiazan, oiñez gaiñera, Asturiasko lurraldietan ziar. Onetan, nagusixenak esaten detsa bestiari:

- I, jarri eiñ biar gaitxuk.

Jarri dira eta gaztiak diño:

- Au dok komerixia. Zapatak be gastau eiñ biar jakuaz.

Bestiak:

- Zapatak diñok? Lurra gastau biar jakuk!

## JUGADA TXARRA DALA-TA

\*\*\* Jokuan ziarduen bik biren kontra. Eibartarra ta plaentxiatarra alde batetik ta beste bixak ermutarrak. Alako batian, jokua pil-pil zeguala, eibartarrak ankasartze ikaragarri bat eñ zeban. Geratu jako plaentxiarra begira-begira, ta esatetsa:

- I, gauza bat jakiñ nai juat. Ik, "por si acaso", gaztetan edo, artu dok golpe txarren bat buruan?

## BANKUA JOTIA, KIEBRIA!

\*\*\* Gaztetxo batzuk pelotan ikasten ziarduen Astelena pelota lekuan maixu batekin. Ertz baten, an zeguan bankua, pelotarixak biar izaten daben esparadrapu, eskupañu, pelota ta abar eukitzeko.

Baziarduan maixuak "pitxaria" zelan egin biar dan erakusten. Eta ormabixak, eta atzera baztertzea...

Onetan, gaztetxo batek esatetsa:

- Zu, maixu, txapia jotia zer da?
- Txapia jotia faltia dok.
- Ta bankua jotia?
- Bankua jotia? Ori kiebria dok, txotxoi.

## KREDITU BILLA

\*\*\* Juan zan gizon bat bankura kreditu billa. An esan zetsen:

- "Abal" bat ekartzen badozu, bai, emongo detsugu eskatzen dozuna.
- Zeiñen "abala" baiña?
- Urlixana izan leike.

Juan da gure gizona Urlixagana "abal" eske. Ara onek zer erantzun zetsan:

- Esaixuek bankokueri emoteko eurak "abala", neuk emongo deuatela dirua-ta.

## SAN PEDRONTZAKO ERREKAUA

\*\*\* "Noche" abadia -Don Pepe Alberdi- famatua eta oso errikoia zan Eibarren. Eibartar bat oso gaixorik zeguan. Deitu detse Don Peperi gure gaixoa konfesau eta Gure Jauna eruateko. Sartu da abadia gaixuaren kuartuan. Abadia ikusixaz batera, esaten detsa gaixuak:

- Zer Noche? San Pedrontzako errekaekin ator?

#### SANTA AGEDATIK IGESKA

\*\*\* Santa Agedako etxe aundixan zeguan plaentxiatar batek iges egin dau bertatik. Arrapatu naixan, berriz barruan sartzeko, jarraitzen detsa San Juan de Dios-ko fraille batek. Diarka esaten zetsan:

- Urlixa, gelditu zaitxe, gelditu zaitxe!

Gure Urlixak erantzun zetsan:

- Geratzekotan, geratu zaitxe zeu, zuri ez detsu iñork jarraitzen-eta.

#### EZKONTZ TRATUAN

\*\*\* Bi familixetakuak baziarduen ezkontz tratuan. Orretan mutillan aitzak, aua zabalduaz, au eta bestia, diranak eta ez diranak eskeintzen... Andriak diñotsa:

- Gizon, baiña...orrek danok eztaukaguz gero...

- Ez eztutu, andra, ainketan diardut, ez emoten.

#### UGENIO BIAJANTIA

\*\*\* Bein batian, "biajantiak" urteroko anai-arteko afarixa eukela eta, deitu zetsen Ugeniori afaltzera juateko. Ugenio juan eziñ, ordea. Eta bere erantzuna.

- Ara, egixa dok medikuak 25 urterako bizitza gitxienez emoten destela, baiñan etxeztek ibiltzen erakusten. Orregaitxik, barkatu, baiña ezingonok etorri gure afarira.

#### BANKOKO PORTERO

\*\*\* Bankoko kontserje izateko oposisiñuak zegozen. Juan da bat orretara, baiñan

ezekixan firmatzen eta orregaitxik kanpora bota zeben. Orduan, gure gizon au asi zan fruta negoziuan, eta ondo baiño obeto, goraka ta goraka zoian. Baitxa be naiko diru sartu bankuani. Ori, bai, bere semiak eitzen zebazen operaziño guztiak. Egun baten, ordea, jausi zan gaixorik semia eta bera jua biar izan zan bankura diru pilla aundi batekin. Orduan be firmia eskatu zetsen. Alperrik baiña...

Eta bankokuak diñotsa:

- Karanba! Zuk firmatzen jakin izan bazendu, noraño igoko ete ziñan!
- Asko ez. Geixenbat bankoko portero izatera.

## UME MEIA

\*\*\* Ama batek eruan zeban Eibarko mediku entzutetsu bategana bere semetxua.

- Zer sentitzen dau ba umetxuak?, diño sendagilleak.
- Ara ba...meia dao-ta...
- Jateko gogorik badauka?
- Bai, ondo jaten dau, baiña meia dao. Indisiño batzuk edo ez litxuzke artuko ia loditzen dan?

Sendagilliak orduan:

- Ze indisiño ta zer demontre! Saldu eiñ biar dozu pixura txarrixan moduan ala?

## GOIZALDIAN PASAUTAKUA

\*\*\* Goizeko bostak eta piku dirala, ba doia plaentxiatar bat bere etxera. Pegoran zapatak kendu eta, ixil-ixillik, zabaldu dau etxeko atia. Oian sartzerakuan konturatzen da zapatak ate onduan geratu dirala. Zeguan moduan, jua da atera eta zapatak artzerakuan, danba!, atia itxi jako.

- Ene, -diño- ointxe naok ondo!

Andik laister, urtetzen dau andriak albako Mezatara eta gizona itxura artan ikusitxa, esatetsa:

- Zer, gizon? Freskuria artzen ala?

## ANGULAK EDO FIDEO SOPIA?

\*\*\* Eibartar kuadrilla batekuak -zortzi lagun- batu ziran kilo laurden angula jateko asmotan. Asi da euretariko bat plasta-plasta, arraunian lez, platertera angula pillia

botatzen. Orduan, beste batek, esatetsa:

- I, txotxo, eztok gero pentsauko fideo sopia danik...

## SEME EZBERDIÑAK

\*\*\* Bi seme ziran familixa aretan: bata "optimistia", eta bestia "pesimistia". Erregiak zetoze eta, gurasoak oso arduratuta zegoen batez be "pesimistiari" zer erregalu ipiñi. Azkenian, aukeratu zeben berantzat erloju polit bat.

- Eta beste semiantzat zer artuko dogu? -ziñuan amak.

- Etzaitte estutu! -diño aitak- arekin ez dogu problemarik izango.

Eta etxeruntz zoiazela, or nun billatu zeben, kale baztarrian, zaldu batek batek egindako korotz benetan dotoria. Auxe bai gauza xelebria erregalu lez!, diñue gurasuak. Gabian ipiñi detsez zapatetan erregaluak. Goizian jaiki dira mutikuak, eta an zegoen, eskutuan, gurasuak begira. Pesimistiak ikusi zeban erlojua eta diño:

- Jesus, zertarako erlojua? Beste problema bat geixago: orduak zaindu biar, kuerdia emon biar, eta gaiñera, jausi ta apurtzen bajata...Zertarako erlojua!

Optimistiak ikusi dau korotza zapatan sartuta, eta poz-pezik, diño:

- Au bai suertia! Nerekin bai ondo portau dirala Erregiak! Karreretako zaldixa ekarri deste, kaka eiñ eta ospa eiñ dau. Baiñan arrapatukot; ondiok errixan egongo da-eta.

## SARGU-ESKALLUAK JATEN

\*\*\* Juan dira sei eibartar Gollibarrera sargu-eskalluekin afarimerixenda eixera. Ta bai jan be gogoz. Lau kazuela ustu zebezen. Jan, edan, erre, kitarra ta kantuekin giro alaitu bat sortu zan mai-inguruan. Urrengo juateko gogua be ein jakuen. Batek esatetsa ugezabari:

- Urrengorako be telefonua emon biestak...

- Etxakau geurerik. Baiña zentralera deotxu leikek. Emongo deuat numerua.

Jarraitxu zeben umore onian, jan, edan eta kantuan. Ordurako kontua eskatuta zeuken. Ezeben, baiña, ekartzen ez kontu eta ez numerorik.

Alako baten jua da sukaldera eibartarren kaporalak.

- Etxekoandre, baiña, kontua ta numerua biar ditzugu...

- A bai, emen daukat apuntauta.

Ikusi ta juan da, zuri-zuri, maira gure eibartarra.

- Mutillak! -diño- ipiñi antiojuak: 12.000!

Kitarrak ixildu ziran. Juan ziran pikutara kantuak eta umore onak. Baiña, gizon jokatu biar eta zelan edo alan, estu ta larri, batu zebezen 12.000 pesetok eta emon detsez etxekoandriari. Onek diño:

- Zertan zabizie! Zer da dirutsa au?

- Kontua; 12.000 pta.

- Ez baiña! Ori zentraleko numerua zan.

## GAUZA SEKRETUA

\*\*\* Bazan Eibar inguruetan "autobatzaille" bat, beti zeozer kontatzeko eukitzen zebana. Dana, gaiñera, sekretu moduan kontatzen zeban.

Egun baten, esatetsa lagun bati:

- Ara, egixa dok, baiñan esaixok iñori esan. Sekretu moduan esaten deuat...

Lagunak:

- Zer, euk kontau bietsek daneri ala?

## SAN PEDRO PISTOLA EROSTEN

\*\*\* Elgoibarko "San Pedro" fabrikatik deitxu dabe telefonoz Eibarrera.

- Eibarko STAR pistola fabrikia al da? Ara emen, "San Pedro"k pistolak erostia nai genduke.

- Baiña, zuek be bai?

- Bai, eun pistola biar doguz.

- Ta zeñekin eta zelan bialdu biar jatsuez?

- Sabinekin.

Telefonuak iñoiz izaten ditxuan zarategaitxik edo, ez zebezen ondo entzun Sabin errekadistian izena.

- Zeñekin esan dozu?

- Sabinekin.

- Gagarinekin?

- Bai, orixe da gure errekadistia.

Ta an geratu zan "pedidua". Eztakigu zelan arreglau ziran pistolak zerura bialtzeko...



## GAITZIZENAK

\*\*\* Gerra aurrean batez be, gaitzizenak ipintzeko oitxura aundixa zeguan Eibarren. Etorri ziran bi kanpoko isribiente eta beriala ipiñi zetsen gaitzizena. Batari "el tubo de la risa" eta bestiari "Madame X". Bazan beste bat -Korriuetako zuzendaria- au be gaitzizenaren jabe zana.

Egun baten alkartu dira irurak "Rialtua"n Gantxusekin. Onek galdetu zetsen ia pozik zegozen Eibarren. Aiek erantzun:

- Bai, oso pozik gagoz. Jende jatorra da emengua. Baiña badute akats bat: gaitzizena beriala ipintzen deskue.

Orduan emakume antzeko abotsa zeukan Korriuetako nagusixak diño:

- ¡Qué raro! Yo llevo en Eibar 10 años y a mí todavía no me han puesto mote.

Gantxusek diñoatsa:

- ¿Qué no le han puesto?

- ¿A mí?

- Sí, a Vd. le llaman "kuixa".

- ¿Y qué es eso?

- ¡Conejo de la India!

## ERROGATIBAK

\*\*\* Markiña aldian Errogatibak eitxera zoiazen Jainkoari eurixa eskatzeko. Esandako orduan, agertu da abadia, ta ikusi zebanian iñok es zaroiala "guardasolik", esatetse:

- Fuera! Danok etxera! Zuek eztaukazue federik. Fedia euki bazenduen, aterkixekin - Eibarren guardasolekin- etorriko ziñazien. Fede barik alperrik dira Errogatibaki.

## EMOSIÑUAN EMOSIÑOZ IL

\*\*\* Eibartar bati biotzeko operasiño larri bat egin biar zetsen. Onetan, baiña, Loterixia tokau jakon: 8 milloi! Semiak ez ziran ausartzen notizia aitxari emoten, emosiñoak biotza etengo ete zetsan bildurrez. Orduan medikuari kontsejua eskatu zetsen, ia zelan

jokatu une artan. Laga zeben asuntua medikuaren eskuetan. Juan da gaixuagana eta esatetsa:

- Zuri, Loterixan, milloi bat tokau ezkerro, zer eingo zenduke?
- Parisera juango nintzake mediku on baten billa.
- Eta bi milloi tokau ezkerro?
- Londresera.
- Eta lau milloi izango balitzakez?
- Nueva Yorkera.
- Eta zortzi tokau ezkerro?
- Ara ba, lau zeuri emongo netzukez.

Berba hauek esan bezin laister, zarata aundi bat entzun zan: medikua infarto batek "seko" lurreratu zeban. Emosiñuan emosiñoz, nunbaitx.

#### DIRU ESKIAN

\*\*\* Eibarren bizi zan kanpotar bati etorri jakozen animentzako diru billa. Arek baiña, eta erderaz, erantzun:

- Animas no comen.

Au bera izango zan, noski, San Antoniori argi eitxeko diru billa etorri jakozenian erantzun zebana:

- Esaioxue San Antoniori egunez ibilli dailla.

#### "HIJO BASTARDO"

\*\*\* Eibarko kuadrilla batekuak ziran biak. Bata, gizon jakitxuna eta estudio aundixak eindakua. Bestia, "brotxa gordako" pintoria. Egun baten eta diskusiñuan ari zirala, esan naixan estudioari familiko "ondria" zala, au beste au, baiña, esan zetsan:

- Ya lo creo, tù eres el hijo bastardo de la familia.

Orduan, asarre, gure intelektualak:

- I, txotxo, esaixak konfunditxu gero Goyaren pintzelak ire brotxa txarrixekin!

## BELIA ANTIOJUEKIN

\*\*\* Baziarduan "Belia"k, Alfán, esmeril arrixan kutxillua zorrozten. Baiñan antiojo barik. Onetan pasau da andik Jabier Biteri medikua ta diñotsa:

- Antiojo barik ago. Olan eztxuk egongo ba azidentiak!

Eta Beliak:

- Nik bajakixat ik zer nai duan: "Belia" antiojuekin ikustia.

## "LORIAK" BOTATZEN

\*\*\* Urlixa oso lora botatzaillia zan. Egun baten esatetsa neska bati:

- Agur, Maitxu, guapisima.

Neskiak, bere aldetik:

- Nik, naiz eta pena aundixakin, ezin ori zuregatxik esan...

Orduan Urlixak:

- Ori ezta problema, Maitxu. Nik lez, esaizu guzur bat eta kitxoi.

## LLAVE INGLESA

\*\*\* 1947. urtian Eibarren oore aundixakin ospatu zan "Congreso Eucaristico"a. Egun-doko jai eta jendetza aundixak izan ziran. Plaentxiatarrak be arritxuta geratu ziran. Egun aietan etorri zan plaentxiatar bat Eibarrera eta emengo batzuei esan zetsen:

- Eibartarrak modukorik eztagok! Zuek zarie "llave inglesa" modukoak.

- Zer ba?

- Zuek tuerka guztietara allegatzen zarie. Danera!

## "TRAPU" PESKAN...

\*\*\* Plaentxiako "Trapu" Santa Agedara eruan zeben. Denbora pasa alde, urten zeban "etxe aunditxik" eskalluak peskatzeko asmotan. Ba daroiaz berakin kapazo eta botillak be. An ziarduan peskan eta alako batian etorri jakoz guardia zibillak.

- ¿Què hace Vd. aquí?

- Peskan, jaunak.

- ¿No sabe que està prohibido? ¿Dònde vive Vd.?
  - Or, etxe aundixan.
  - ¡Vamos allà mismo a hacer las diligencias!
- Eta eruan zeben gure "Trapu" guardia zibillen erdixan. Etxe aundira eltzean, an zeguan medikuari esatetsa:
- Direttore jauna, emen dakartzudaz beste bi.

### "GRANUJA" ALPERRA

\*\*\* Eibarren esaten dan granuja "aprendiz" bat zan. Itxura danez, oso alperra. Juan jako ugezaba:

- Zer? Zelan ago geldirik?
- Eztago argirik-eta.
- Eztagoala argirik? Beian biarrian dabixak barren...
- A, orduan bonbillia egongo da funditxuta.
- Juari eskillarian billa! -diñotsa ugezabak.

Alako baten badator gure granujia:

- Eztot billatzen eskillaria.
- Ik zer billau! Bueno, neu jarriko nok azpixan eta i jarri ari gaiñian bonbillia ipintzeko. Igo da gure mutilla ugezaban sorbaldan gaiñera. Baiña an zegoan geldi.
- Ez aiz allegatzen ala? -diñotsa ugezabak.
- Bai, baiñan...
- Zer eitxen dok pa?
- Eske...zaiñ nago zeuk bueltak emoteko, olan bonbillia arixan sartu deiñ.

### AMUATEGI TA APUTXIN

\*\*\* Gure gizaldiaren lenenguetan, Casa de Pueblo-n "asamblea" zeukaten Eibarko sozialistak. Akilino Amuategi zan batzarraren zuzendarixa. Jende artian, an zeguan "Aputxin", apurtxo bat anarkista zana. Amar puntu ziran tratatu biarrekoak. Bosgarrena AMOR LIBRIARI buruz. Seigarrena 8 ORDUKO BIARRARENA. Laugarren puntua amaitxu zanian, Amuategik seigarrenera salto egin zeban. Aputxinek, baiña, iPIDO LA

PALABRA!, diadarka jaiki zan. Amuategik goitxik:

- Zer nai dok, Aputxin?
- Oiñ ori eztok tokatzen. Oiñ tokatzen dana dok AMOR LIBRIA.

Amuategik:

- I eta ni garan zatarrekin, guregana duan zein emakume etorri leikek?

## SANTA AGEDA BISPERAN

\*\*\* Santa Ageda bispera gabian, eibartar "librepensadore" taldetxo bat asi zan kantuan parrokuaren etxe aurrian:

Kura parroko, motrongo  
ik ez dok asko emongo  
ik emondako diruakin  
etxuau asko edango.

Onetan, urten dau leio edo bentanara Don Eugenio Urrozek eta dinotse:

- Mutilak, etorri kafia artzera.

Bestiak, ez gusto-gustora, erdi lotsatuta, sartu dira parrrokuan etxian. Kafia artu ondoren, Don Eugeniok:

- Agur mutilak. Ia oiñ balorerik daukazuen Casa de Puebluan esateko parrokuakin kafia artu dozuela.

## TELEBISTA ZALA-TA

\*\*\* Basarritar bati ekarri zetsen telebista bat. Aren poza!

Programa ederrak ikusi naixan, asi zan botoieri ikutzen martxan ipintzeko. Etzan, baiña, ezer ikusten. Botoiak alemanez izendatuta zegozen. Tekniko erdeldun batek diñotsa:

- Vd. tenga en cuenta que EIN, en aleman, significa EN MARCHA y AUS es apagado.
- Sì, sì, ahora yo entiendo: EIN quiere desir EINSINDIDO y AUS, AUSCURAS.

## ENTERRADORIAKIN BERBETAN

\*\*\* Markau dau batek telefonoko numerua ta asi da berbetan:

- I, afarixa prest badaok, laister gaitxuk or. Ipiñi arda botillak freskatzzen. Gaur, juerga izugarrixa eñ biar juagu.
- Zer?
- Bizi pozez beterik gagozela ta gaur demaseko juergia eñ bear dogula.
- I, baiña, badakik norekin berbetan diarduan?
- Eztok ori Allegro soziedadia, ala?
- Ez ari iraotu! Ni enterradoria nok.
- Barkatik orduan. Oindiok ez aut biar.

## KINTZENA KONTUAK

\*\*\* Ba zan gizon bat biarrerako zaletasun larregirik ez zeukana. Arek esaten zeban:

- Erretirua 40 urtekin artu biarko litzakek. Eta 65 urtekin barriz biarran asi.

Kintzeniari buruz be bazeukan bere "teorixia":

- Kintzenia egunero kobrau biarko litzakek. Egunero eta goizetik.

Eztakigu au berau izan zan edo beste bat. Itxura danez, kintzeniari zati aundi bat kentzen zetsan bere gastuentzat. Etxeko premiñak aundixak izanik, beiñ batian bere andria juan zan fabrikara eta, gizonan orde, -eztakigu zer aitzekikin- kobrau zeban kintzenia. Gizona kobratzera juan zanian dinotse:

- Ire kintzenia andriak kobrau jok.

- Ah, ondo daok.

Urrengo goizean, jo dau fabrikako "sireniak". Gure gizona, baiña, geldi oian. Juan jako andria:

- Gizon, ez zoziaz biarrera ala?

Eta arek erantzun:

- Kintzenia kobrau dabena juan deilla!

## SOLDAU-KINTO ARTIAN

\*\*\* Inguruetako soldau-kinto batzuk zozketa edo sortea eixera juan ziran Donostia-  
ra. Zozketa ondoren, asi ziran alkarren arteko galdera edo preguntak.

- Nora tokau jak?

- Neri Ferrolera.

- Neri Gasteizera.

- Neri frabikako direktoriakin.

Bestiak, arritxuta:

- Zer esan dok?

- Papelak diñuana. Ara or!

- I, txotxo, or ez jiñok gero "director de frabika", or jiñok "directo a Africa".

## UR-ESNIA

\*\*\* Esne-saltzaille bat denunziau zeben esniari ur asko botatzen zetsalako. Multia  
pagatzeko orduan, diño:

- Ta zuek zelan dakizue gure esniak ainbeste ur daroiala?

Orduan, sekretarixuak:

- Konprobatuta daok: eskalluak, esnetan, segitxuan iltzen ditxuk eta uretan bizi. Ta ara,  
zure esne-marmitxan, urrengo egunian be, bizi-bizirik jeuazen.

## KRIADA BEREZIA.

\*\*\* "Maskuelo"nera agertu ei zan neska gazte bat kriada izateko asmotan. Baiñan,  
kondiziño asko ipintzen zebazen orretarako. Etxian euki biar ziran, aspiradoria,  
"labaplatos" mekanikua etabar. Ordu kontuan be esijentzia asko ipintzen zitxuan.

"Maskuelo"k bere aldetik:

- Ta zuk gazte, badakizu pianua jotzen?

- Ez

- Ba, orduan, ez zaitxugu biar.



Liburu hau GERTUK egin du.  
1991ko azaroaren 28an, Eibarko Udalean Jose Luis Ansorena jaunak aurkeztu zuen  
1.500 ale argitaratu dira.

